

EUSKADIKO GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

2019

Euskadi, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Izenburua: Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa, 2019

Egilea: Gazteen Euskal Behatokia

Ikerketa-taldea: Nieves Corcuera Bilbao, Miren Bilbao Gaztañaga eta Oskar Longo Imatz

Diseinu grafikoa eta maketazioa: Gazteen Euskal Behatokia

Bilbo, 2019ko martxoa



Dokumentuaren edizio honetan jasotako edukiak lizentzia honekin argitaratu dira: Aitorpena - Ez-komertziala - Obra eratorririk gabea 4.0
Unported de Creative Commons (informazio gehiago:
http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

AURKIBIDEA

Sarrera eta metodologia.....	7
1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA	8
1.1. Euskadiko biztanleria gazteak biztanleria osoan duen pisua beheraka doa oraindik.....	8
1.2. Nazionalitate atzerritarra duten gazteen kopuruak behera egin du	11
1.3. Ugalkortasun-tasak behera egin du, eta ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 30 urtetik gorakoa da oraindik	12
2. HEZKUNTZA	14
2.1. Eskola uzte goiztiarraren tasa beherantz doa oraindik ere	14
2.2. 30 eta 34 urte artekoen artean, goi-hezkuntzako titulazioen tasa % 50era hurbiltzen da.....	14
2.3. 35 urtez azpikoek Euskadiko unibertsitateetan egindako tesi gaindituen kopuruak gora egin du	15
2.4. PISA txostenean, okerrera egin dute Euskadiko 15 urteko neska eta mutil gazteen emaitzek	16
2.5. Gora egin du D eremuan matrikulatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleen ehunekoak	16
2.6. Euskararen ezagutzak zertxobait gora egin du 15 eta 29 urte arteko gazteen artean	17
2.7. Ingelesez oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutela dioten gazteen ehunekoa asko handitu da 10 urtean	18
2.8. Euskadiko gazteen herenak hirueledunak dira.....	18
2.9. Intolerantzia ideologikoa areagotzeak sendotu egiten du balioetan hezte beharrezkoa delako ideia	19
2.10. EAEko hezkuntza-sistemari buruzko balorazioak hobera egin du gazteen kolektibo guztietan.....	20
3. ENPLEGUA	21
3.1. Ikastea da 25 urtetik beherako gazteen okupazio nagusia; adin horretatik aurrera, lanean aritzen dira gehienak	21
3.2. Oraindik ere behera doa biztanle gazteen jardura-tasa: 2018an, 16 eta 29 urte arteko pertsonen erdiak baino gutxiago daude lanean edo lan egiteko prest	22
3.3. Enplegu-tasak, nahiz eta 2008a baino lehenagoko urteetako ehunekoak berreskuratu ez diren, hazkunde motela baina iraunkorra izan du azken hiru urteetan	23
3.4. Lanbide Heziketako ikasketak egin ondoren lanean hasi direnen ehunekoak hobera egin du 2017an: urtebete lehenago ikasketak amaitu zituztenen artean, % 78,7 da okupazio-tasa	24
3.5. 2017an, gora egin du unibertsitatea hiru urte lehenago bukatu zutenen enplegu-tasak	25

3.6. Gazteen langabezia-tasak behera egin du 2018an, % 15,5era. Beherakada hori askoz handiagoa da Espainia osokoa baino, eta Euskadiko gazteen langabezia-tasa Europako batezbestekora gerturatzen du.	26
3.7. Iraupen luzeko langabeziaren tasak behera egin du	28
3.8. Aldi baterako enpleguek gora egin dute: 2018an, soldatapeko gazteen % 68,1ek dihardute behin-behinean	28
3.9. Lanaldi partzialeko enplegua % 30 inguruan egonkortu da azken urteetan; 2008ko datua halako hiru da hori. Emakume gehiagok jarduten dute lanaldi partzialean gizonen baino.....	29
3.10. 2017an igo egin da gazteen batez besteko soldata: hilean 1.000 euro baino zertxobait handiagoa da	31
3.11. Enplegu bideratuak gora egin du lan egiten dutenen artean: 10 gazte landunetik 6k beren prestakuntzarekin lotutako lan bat dute.....	31
3.12. Norberaren konturako lana Europar Batasuneko batezbestekoan mantentzen da.....	32
3.13. Laneko istripuen indizeak nabarmen egin du behera azken hamarkadan	33
4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA	34
4.1. Euskadiko gazteek gurasoekin bizitzeari uzten dioten batez besteko adina Europako altuenetako bat da	34
4.2. 18 eta 34 urte arteko pertsonen emantzipazio-tasa % 37,9 da.....	34
4.3. Etxebizitzaren garestitzea eta baliabide ekonomiko propioak izateko zailtasunak dira emantzipatzeko arazo nagusiak	36
4.4. Alokatzearen aldeko aukerak gora egin du azken urteetan, asko, eta gazte gehienek emantzipazio-aukera nagusi bihurtu da	37
4.5. Hipoteka edo alokairu-errenta ordaindu ahal izateko gehiegizko esfortzu ekonomikoa egiten duten gazte emantzipatuen ehunekoak behera egin du.....	38
5. OSASUNA	39
5.1. Gazte gehienek uste dute osasun ona dutela. Hala ere, ia bost gaztetik batek osasun-arazo kronikoak ditu eta ia hamar gaztetik batek antsietatea edo depresioa du	39
5.2. Hamar gaztetik zortzik baino gehiagok jarduera fisiko osasungarria egiten dute	41
5.3. Obesitate-tasak behera egin du 2013 eta 2018 artean	41
5.4. Bost gaztetik batek alkohol gehiegi edo modu arriskutsuan kontsumitu du galdeketaren aurreko hilabeteko egunen batean	42
5.5. Tabakoaren kontsumoak behera egin du eta biztanleria osoaren batezbestekoaren azpitik jarraitzen du	43
5.6. Kalamuaren ohiko kontsumoak ere nabarmen egin du behera, eta egonkor mantendu da 2012 eta 2017 artean	43
5.7. 15 eta 29 urte arteko gazteen % 3,7k jarrera arriskutsua dute jokoari dagokionez.....	44
5.8. 15 eta 29 urte arteko gazteen % 12,2k sexu-harreman arriskutsuren bat izan dute azken urtean	45

5.9. 15 eta 29 urte arteko gazteen artean, GIBak eragindako infekzio berrien tasak azken urteetako baliorik apalena izan du, 10.000 pertsonako 1,0	46
5.10. Nerabazaroko haurdunaldien tasa bere horretan mantendu da	46
5.11. Azken hamarkadan, nabarmen gutxitu dira zirkulazio-istripuengatiko heriotzak	47
6. GIZARTE-EKINTZA ETA BERDINTASUNA.....	50
6.1. Ia 16 eta 29 urte arteko pertsonen erdiek 300 euro baino gutxiago dituzte hilean, eta adin horretako gazteen herenak baino gutxiago iristen dira 600 eurora.....	50
6.2. Ekonomiari dagokionez, gazte gehienak familiaren mende daude; 16 eta 29 urte arteko gazteen laurdenek soilik diote ekonomikoki independenteak direla	50
6.3. Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoak gora egin du krisi ekonomikoaren ondorioz	51
6.4. 16 eta 29 urte arteko gazteen % 2,0k DBE jasotzen dute.....	52
6.5. 15 eta 29 urte arteko 1.000 emakumetik 8,4k salaketa jarri dute genero-indarkeriaren ondorioz, 2009tik aurrerako tasarik handiena	53
6.6. Areagotu egin da bikote barruan izan daitezkeen indarkeria-forma guztien larritasunaren gaineko kontzientzia.....	54
6.7. 15 eta 29 urte arteko hiru emakumetik bati beldurra ematen dio gauean herrian edo auzoan bakarrik ibiltzeak.....	54
6.8. Lana eskuratzeko orduan ere agerian jartzen dira gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak; emakume gazteen % 27,6k diote gizonak aukera gehiago dituztela lana lortzeko.....	55
6.9. Gero eta gehiago dira sexu berekoen arteko ezkontzak eta sexu-aldaketak onartzearen alde daudenak	56
7. PARTE-HARTZEA ETA KONTSUMOA.....	58
7.1. 15 eta 29 urte arteko gazteen asoziazionismo-tasak gora egin du.....	58
7.2. Boluntario-jarduerak egiten dituzten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoak ere gora egin du	58
7.3. 2008tik 2016ra, bikoiztu egin da politikan interesa duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa.....	59
7.4. 15 eta 29 urte arteko hamar gaztetik lauk nahiko lukete parte-hartze aktiboagoa izan gai publikoetan.....	60
7.5. Immigranteak etortzearen aurkako jarrerak behera egin du	61
7.6. Euskadiko gazteen % 29,8k kontsumo jasangarria egiten dute.....	62
7.7. Lehen baino gehiago erabiltzen dira garraiobide jasangarriak: garraio publiko kolektiboa eta bizikleta	62
8. AISIA, KULTURA eta KIROLA.....	65
8.1. 15 eta 29 urte arteko pertsonen aisia-jarduera nagusiak teknologia berrieekin lotuta daude.....	65

8.2. Euskadiko ia-ia gazte guztiek sare sozialen bat erabiltzen dute, WhatsApp, Facebook, Instagram eta Youtube batik bat	66
8.3. Teknologia berriek arte-jardueretan parte-hartze handiagoa izatea eragin dute, ikus-entzunezkoetan batik bat	67
8.4. Hamar gaztetik zortzi baino gehiago joan dira kultura- edo kirol-ikuskizunen batera azken hiru hilabeteetan	68
8.5. Euskadiko gazteen ia erdiek kirolen bat egiten dute modu erregularrean	69
8.6. 15-29 urteko gazteen erdiek baino gehiagok diote azken hilabeteen libururen bat irakurri dutela aisiagatik	70
8.7. Euskaraz irakurtzeko ohitura gero eta txikiagoa da ikasketak amaitu ahala	71
8.8. Euskararen lagunarteko erabilerak behera egin du 15 eta 29 urte arteko gazte euskaldunen artean	72
8.9. 15 eta 29 urte arteko gazteen % 15,0k euskara erabiltzen dute hizkuntza nagusi gisa sare sozialetan	73
Laburpen-koadroa	75

Sarrera eta metodologia

Txosten honetan, Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko gazteek 2019an duten egoerari buruzko diagnostikoa egiten du. Txostena egiteko, erreferentzia gisa hartu dira Behatokiak berak bere webguneko *Gazteriaren inguruko adierazle-sisteman* eguneratuak dituen datuak.

Dokumentu honen helburu nagusia da Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte arteko pertsonen kolektiboari buruzko jakintzan sakontzea, eremu hauei dagokienez: egoera demografikoa, hezkuntza, enplegua, emantzipazioa eta etxebizitza, osasuna, gizarte-ekintza eta berdintasuna, parte-hartzea, aisia, kultura eta kirola.

Diagnostiko honetan, zenbait iturritan jasotako informazioa erabili da, hala nola Gazteen Euskal Behatokiak berak egindako ikerketak (*Euskadiko gazteak* seriea, *Emantzipazioa* seriea, *Aurrera begira* eta abar). Funtsezko beste iturri estatistiko bat Gazteen Euskal Behatokiak bi urtean behin egiten duen *Gazteen panoramika* izeneko ikerlana izan da. Lan horretan, 116 adierazle aztertzen dira gaur egun, eta neurri handian erabili dira diagnostiko hau egiteko. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren beste esparru batzuetako ikerketak ere erabili dira: EUSTAT; Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Osasun Saila, Hezkuntza Saila eta abar.

Zenbait adierazletarako, aukera egon denean eta egokitzen jo denean, beste eremu geografiko batzuetako datuak erabili dira (Espainia eta 28en Europar Batasuna) aldagaiei buruzko alderaketak egiteko. Alde horretatik, Estatistika Institutu Nazionala (INE) eta Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoa (EUROSTAT) izan dira iturri nagusiak.

Kasu guztietan, eskuragarri dauden datu berrienak hartu dira, estatistika batzuk eta besteak maiztasun desberdinez egiten baitira.

Diagnostiko honetan jasotako informazioan sakondu nahi izanez gero, Gazteen Euskal Behatokiaren webgunera jo daiteke. Webgune horretan, baliabide hauek daude: adierazle-sistema bat online, datu-base interaktibo bat *Gazteen Panoramikaren* informazio guztiarekin, bai eta Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerketen serie osoak ere.

1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA

1.1. Euskadiko biztanleria gazteak biztanleria osoan duen pisua beheraka doa oraindik


Faktore hauek batera gertatzearen ondorioz ari da zahartzen biztanleria: jaiotza-tasa txikia, beheranzko joera duen heriotza-tasa, eta, azkenik, bizi-itxaropen gero eta luzeagoa. Fenomeno hori Europa osoan ari da gertatzen, eta luze eta zabal dokumentatu eta aztertu da. Euskadi fenomeno horren adibide muturrenetako bat da.

2018ko urtarrilaren 1ean, Euskadik 2.180.449 biztanle zituen. Biztanle horietatik 287.274 ziren 15 eta 29 urte arteko gazteak: % 50,9 gizonak (146.348) eta % 49,1 emakumeak (140.926).

1975ean, Euskadik 2.000.000 biztanleren muga gainditu zuen lehen aldiz, eta, ordutik hona, Euskadiko biztanleriaren hazkunde txikia izan da. Biztanleria gaztea, bestalde, beherantz doa etengabe.

1.1 grafikoa.

Euskadiko 15 eta 29 urte arteko biztanleria gaztearen eta biztanleria osoaren bilakaera (zifra absolutuak)




Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)

15 eta 29 urte arteko biztanleen kolektiboa bost urtekako adin-taldetan banatu eta haren barne-egiturari erreparatuta, ikusten da banaketa nahiko homogeneoa dela: 15-19 urtekoak gazte guztien % 33,3 dira (95.735 pertsona), 20-24 urtekoak, % 31,9 (91.863 pertsona) eta 25-29 urtekoak, % 34,8 (99.676 pertsona).

1.2 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko biztanleria gaztea, bost urtekako adin-taldean eta sexuaren arabera, 2018an (zifra absolutuak)




Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)

Lurralde historikoen arabera, Euskadiko 15 eta 29 urte arteko biztanleen % 51 Bizkaian bizi dira (146.663 pertsona), % 34 Gipuzkoan (97.602 pertsona) eta % 15 Araban (43.009 pertsona).

Jaiotza-tasa txikiaren eta bizi-itxaropen handiago horren isla, hain zuzen, Euskadiren biztanleria-piramide alderantzikatu da, eta bigarren trantsizio demografikoaren berezko egitura du: helduen eta zaharren adin-taldeak handitu dira, eta adin txikiaren taldeek bere horretan jarraitu edo behera egin dute. Halaxe ikusten da 1978tik 2018ra bitartean izandako bilakaeran.

1.3 grafikoa.

Euskadiko 15 eta 29 urte arteko biztanleria gaztearen eta biztanleria osoaren bilakaeren arteko alderaketa (gehiruntza- eta beherapen-ratioak)




Iturria: EUSTAT. Adierazle demografikoak (Biztanleen udal-estatistika. Biztanleriaren proiektzioak)

Demografia-joera horien ondorioz, gazteen indizeak (hau da, pertsona gazteen proportzioa biztanleria osoan) etengabeko jaitsiera izan du Euskadin azken urteotan: 2003an, % 20,2koa zen, eta 2018an, berriz, % 13,2koa. Balio hori dela eta, Euskadiko gazteen indizea Europako eskualdeetako baxuenetako

bat da. Kontinente zahartua da Europa; hain zuzen ere, 2017an, 28en EBko gazteen batez besteko indizea % 17,2 zen.


1.4 grafikoa.
Euskadiko gazteen indizearen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATEN datuak oinarri harturik (Biztanleen udal-estatistika)

Bestalde, 15 eta 29 urteko pertsonen eta 64tik gorakoen artean erlazio bat ezartzen badugu, datuek berriro ere erakusten digute gazteek pisu espezifikoak galdu dutela biztanleria osoari dagokionez. 2006an, 96,9 gazte zeuden 64 urtetik gorako 100 pertsonako; 2018an, ratio hori 59,9ra jaitsi da.

1.5 grafikoa.
15 eta 29 urte arteko gazteek 64tik gorako 100 pertsonako duten kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATEN datuak oinarri harturik (Biztanleen udal-estatistika)

1.2. Nazionalitate atzerritarra duten gazteen kopuruak behera egin du

Euskadin bizi diren gazteen % 14,5ek atzerriko nazionalitatea dute. Euskadin bizi eta nazionalitate atzerritarra duten gazteen kopurua asko handitu zen 2006 eta 2012 artean, 26.127 pertsonatik 46.554 pertsonara, baina azken urteetan kopuru hori gutxitu egin da (2018an, 36.920 pertsona dira). Beherakada hori faktore hauen konbinazioak eragin du: batetik, gazte atzerritar gutxiago datoz Euskadira; bestetik, Euskadin bizi diren atzerritar batzuk beste lekuetara emigratzen ari dira, eta, azkenik, atzerritar batzuek Espainiako nazionalitatea eskuratzen dute.

1.6 grafikoa.

Euskadin nazionalitate atzerritarra duten 15 eta 29 urte arteko biztanleen bilakaera (zifra absolutuak)



Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)


Sexuaren arabera, hau da kolektibo horren biztanleria-egitura: 17.868 gizon (% 49,2) eta 18.422 emakume (% 50,8). Bost urtekako adin-taldeen egiturari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu 15 eta 19 urte arteko kolektiboan 7.725 pertsona daudela (% 21,3), 20 eta 24 urteko kolektiboan 11.718 daudela (% 32,3) eta 25 eta 29 urte artekoena dela ugariena, 16.847 pertsonarekin (% 46,4).

Aurreko diagnostiko batzuetan, azpimarratzen zen atzerritarren kolektiboak eragina zuela Euskadiko biztanleriaren zahartze-fenomenoa arintzeko, baina azken urteotan eragin hori txikiagoa da.

Izan ere, nazionalitate atzerritarra duen biztanleriaren gazteen indizearen bilakaerari erreparatzen badiogu, eta alderatzen badugu Euskadiko biztanleria osoko gazteen indizearen bilakaerarekin, ikus dezakegu gazteen ehunekoak behera egiten ari direla bi kasuetan azken 10 urteetan. Hala ere, nazionalitate atzerritarra dutenen artean, gazteen proportzioa hamar puntu gorago dago (% 24,3 eta Euskadiko biztanleria osoan % 13,2).

1.7 grafikoa.

Euskadiko gazteen indize orokorraren eta nazionalitate atzerritarra duten biztanleen gazteen indizearen bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)


1.3. Ugalkortasun-tasak behera egin du, eta ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 30 urtetik gorakoa da oraindik

Euskadin, ia 20 urtean (2000tik, hain zuzen), ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 30 urtetik gorakoa izan da. 2017an izan zuen adierazle horrek baliorik handiena: 31,9 urte.

Datu hori are adierazgarriagoa da ama gazteen nazionalitateari erreparatzen badiogu, espainiar nazionalitatea dutenen artean batez besteko adina 32,6 urtekoa baita. Nazionalitate atzerritarra duten emakume gazteen artean, ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 27,5 urte da. Bestalde, bitxia da ikustea atzerriko nazionalitatea duten emakume gazteen artean ama lehen aldiz izateko adina handituz doala: 26,2 urte zen 2002an, eta 27,5 urte 2017an.

1.8 grafikoa.

Euskadiko emakumeak lehen aldiz ama izateko batez besteko adinaren bilakaera, nazionalitatearen arabera (urteak)



Iturria: INE (Oinarrizko adierazle demografikoak)

Ugalkortasun-tasaren indizeak neurtzen du zenbat haur jaiotzen diren bizirik urtean adin-tarte jakin bateko 1.000 emakumeko. Euskadin, 15 eta 29 urte arteko nesken ugalkortasun-tasa 26,3 da, adin-tarte horretako 1.000 emakumeko. Balio hori nekez interpreta daiteke, baina behar bezala ebalua daiteke, 28en EBko batez besteko balioarekin alderatuz gero. EBn, 2015ean, balio hori 50,6 zen, 15 eta 29 urte arteko 1.000 emakumeko.

Hori gutxi balitz bezala, hurrengo grafikoak erakusten du ugalkortasun-tasa dela Euskadiko biztanleria-piramidearen alderantzizkatze-prozesuaren berri ematen duten beste adierazleetako bat.

1.9 grafikoa.

Euskadiko 15 eta 29 urte arteko emakumeen ugalkortasun-tasaren bilakaera, adin-tarte horretako 1.000 emakumeko



Iturria: INE (Biztanleriaren Berezko Mugimenduaren Estatistikak)

KAPITULUAREN LABURPENA

Azken 15 urteetan, 15 eta 29 urte arteko gazteen kopurua nabarmen gutxitu da eta bizi-itxaropena luzatu egin da; horrenbestez, gazteek pisu erlatibo txikiagoa dute biztanleria osoaren gainean. Horrez gain, badirudi hurrengo urteetan ere joera horri eutsiko zaiola, zenbait faktore kontuan hartzen baditugu: Euskadin bizi eta nazionalitate atzerritarra duten gazteen bolumena geldialdian dago, emakumeak gero eta nagusiago izaten dira ama lehen aldiz, eta ugalkortasun-tasak apalak dira.

2. HEZKUNTZA


2.1. Eskola uzte goiztiarraren tasa beherantz doa oraindik ere

Eskola uzte goiztiarraren tasak hau neurtzen du: 18 eta 24 urte arteko biztanleen zer ehunekok bukatu duen gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta ez duen inolako ikasketarik edo prestakuntzarik egin inkestaren aurreko lau asteetan.

Eskola uzte goiztiarraren tasak bilakaera positibo nabarmena izan du azken urteotan Euskadin: 2006an, % 12,0 zen, eta 2017an, berriz, % 5,4. Mutilen eta nesken arteko aldea txikituz joan da (2006an, % 15eko eta % 8,5eko tasak zituzten, hurrenez hurren), 0,4 punturen aldera heldu arte (% 5,6 mutilen artean, eta % 5,2 nesken artean 2017an).

2.1 grafikoa.

18 eta 24 urte arteko gazteen eskola uzte goiztiarraren tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT (2020 Europa adierazleak)

Balio hau dela eta, Euskadi egoera hobean dago Espainia baino (% 18,3 da tasaren balioa Espainian), bai eta 28en EB baino ere (% 10,6 EBn).


2.2. 30 eta 34 urte artekoen artean, goi-hezkuntzako titulazioen tasa % 50era hurbiltzen da

30 eta 34 urte arteko pertsonen goi-hezkuntzako titulazioen tasa (unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak) ia hamar puntu handitu da 2007tik 2017ra, % 38,7tik % 46,1era.

Urte hauetan areagotu egin da goi-mailako titulazioa duten gizon eta emakume gazteen ehunekoa, baina gizonen eta emakumeen tasen arteko desberdintasunek emakumeen aldeko arrakala erakusten dute argi eta garbi: 2017an, 30 eta 34 urte arteko emakumeen % 57,2k zuten goi-mailako titulazioa, eta gizonen % 36,1ek.

2.2 grafikoa.

30 eta 34 urte arteko gazteen goi-hezkuntzako graduazio-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT (Euskadi 28en EBn)


2.3. 35 urtez azpikoek Euskadiko unibertsitateetan egindako tesi gaitutuen kopuruak gora egin du

2007tik 2017ra, 35 urtetik beherakoek Euskadiko unibertsitateetan egindako eta gaitututako tesien kopurua bikoitza baino gehiago da: zehazki, 198tik 437ra ugaritu dira.

Oro har, emakumeek tesi gehiago egin dituzte gizonak baino.

2.3 grafikoa.

35 urtez azpikoek Euskadiko unibertsitateetan gaitututako tesien kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera (zifra absolutuak)



Iturria: EUSTAT (Hezkuntza-jardueraren estatistikak)


2.4. PISA txostenean, okerrera egin dute Euskadiko 15 urteko neska eta mutil gazteen emaitzek

Ikasleen Nazioarteko Ebaluazio Programaren Txostenak (PISA txostena) ikasleen errendimenduaren azterketa du oinarri. Ebaluazio horretarako, azterketa batzuk egiten dira hiru urtean behin zenbait herrialdetan, ikasleen nazioarteko balorazioa zehazteko. Txosten hori ELGEk egiten du, 15 urteko ikasleei proba estandar batzuk egin ondoren.

Neurtutako hiru konpetentzietan, 2015eko balioek izugarri egin dute behera. Zientzietarako konpetentzia 506 puntutik 483 puntura jaitsi da; irakurtzeko konpetentzia, berriz, 498 puntutik 491 puntura, eta matematikarako konpetentzia, azkenik, 505 puntutik 492 puntura. Jaitsiera horiek direla eta, Euskadi ELGEko batezbestekotik behera dago zientzietarako eta irakurtzeko konpetentzietan (bi arlo horietan, ELGEko batez besteko puntuazioa 493 da). Matematikarako konpetentziari dagokionez, bestalde, ELGEkoa baino zertxobait handiagoa da Euskadiko batezbestekoa (490 eta 492 puntu, hurrenez hurren).

2.4 grafikoa.

Euskadin 15 urteko ikasleek PISA txosteneko probetan zientzietarako, irakurtzeko eta matematikarako konpetentzietan lortutako balioen bilakaera (puntuak)



Iturria: Hezkuntza Saila, ISEI-IVEI (PISA 2015 EUSKADI. Emaitzen txostena)

2.5. Gora egin du D ereduaren matrikulatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleen ehunekoak

Urte hauetan asko handitu da ikasketak D hizkuntza-ereduan (euskaraz, gaztelania irakasgai gisa dutela) egiten dituzten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleen ehunekoa. 2016/2017ko ikasturtean, ikasleen bi herenak izan ziren.

2.5 grafikoa.

D ereduan matrikulatutako DBHko ikasleen ehunekoaren bilakaera (%)



Erreferentziazko urtea ikastaroaren bigarren urteari dagokiona da

Iturria: EUSTAT (Hezkuntza-jardueraren estatistika)

Lurralde historiko batetik bestera alde nabarmenak daude. 2016/2017ko ikasturtean, ikasle horiek % 49,2 ziren Araban, % 60,7 Bizkaian eta % 80,4 Gipuzkoan.

2.6. Euskararen ezagutzak zertxobait gora egin du 15 eta 29 urte arteko gazteen artean


Euskadiko 15 eta 29 urte arteko gazteen % 69,3k diote euskaraz oso ondo edo nahiko ondo egiten dutela.

Gipuzkoan, ehuneko hori % 78,9ra arte igotzen da, eta Araban eta Bizkaian txikiagoa da (% 51,4 eta % 68,3, hurrenez hurren).

Euskararen ezagutzari dagokionez, zenbat eta gazteago, orduan eta hobeto menderatzen dute hizkuntza. Hain zuzen ere, 15 eta 19 urte arteko gazteen % 81,3k euskararen ezagutza-maila oso ona edo nahiko ona dute; 20 eta 24 urte artekoen taldean, ehuneko hori % 69,5era arte jaisten da; eta 25 eta 29 urte artekoen taldean, berriz, % 59,1era. D ereduan matrikulazio gehiago egoteak eragiten du euskaraz ondo hitz egiten dakiten gazteen ehunekoa handiago izatea.

2.6 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen euskararen ezagutzaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (%)




Iturria: EUSTAT (Bizi-baldintzen inkesta) eta Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)

2.7. Ingelesez oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutela dioten gazteen ehunekoa asko handitu da 10 urtean

2016an, 15 eta 29 urte arteko gazteen % 41,5ek oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten zuten ingelesez.

2.7 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen ingelesaren ezagutzaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (%)



Iturria: EUSTAT (*Bizi-baldintzen inkesta*) eta Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak 2016*)


2.8. Euskadiko gazteen herenak hirueledunak dira

Euskadiko hirueletasun-tasa kalkulatzeko, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo egiten duten gazteen ehunekoa hartzen da kontuan. Adierazle horrek balio gero eta handiagoak ematen ditu, ingelesaren ezagutzak nabarmen gora egin duelako. 2016an, Euskadiko 15 eta 29 urte arteko pertsonen % 34,6k adierazi zuten euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egiten zutela; kopuru hori 2004an erregistratutakoa halako bi da ia.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak du balio handiena (% 43,3). Alde handia dago beste bi lurralde historikoekin, euskararen ezagutza handiagoa delako Gipuzkoan (lurralde honetan gazteen % 78,9k diote euskaraz oso ondo edo nahiko ondo egiten dutela; Araban, % 51,4k diote hori; eta Bizkaian, berriz, % 68,3k).

2.8 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen hirueletasunaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (%)



Iturria: EUSTAT (Bizi-baldintzen inkesta) eta Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)

2.9. Intolerantzia ideologikoa areagotzeak sendotu egiten du balioetan hezte beharrezkoa delako ideia

Intolerantzia ideologikoa neurtzeko, kontuan hartzen da eurenak ez bezalako ideia, sinismen eta balioak dituzten pertsonekin oso edo nahiko deseroso egoten diren 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa.

Adierazle hau % 10,3koa zen 2004an, eta % 16,6ra areagotu zen 2016an. 2004an eta 2008an ez zen igartzen alderik gizon eta emakume gazteen artean, baina 2012an eta 2016an hauteman zen gizon gazteak zertxobait intoleranteagoak direla emakume gazteak baino.

2.9 grafikoa.

Eurenak ez bezalako ideiak, sinismenak edo balioak dituzten pertsonekin oso edo nahiko deseroso egoten direla dioten Euskadiko 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)


2.10. EAEko hezkuntza-sistemari buruzko balorazioak hobera egin du gazteen kolektibo guztietan

Euskadiko hezkuntza-sistemaren balorazioa oso positiboa da eta, gainera, 2016an izan du baloraziorik altuena. Hain zuzen ere, gazteen % 67,3k uste dute hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela.

Alde nagusia lurralde historikoen arabera ikusten da. Arabako gazteen % 71,9k pentsatzen dute Euskadiko hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela. Gipuzkoan, ehuneko hori are handiagoa da (% 78,2). Bizkaian, berriz, askoz txikiagoa da (% 59,0), eta horrez gain, % 12,8k uste dute Euskadiko hezkuntza-sistema txarra edo oso txarra dela.

2.10 grafikoa.

Gazteek EAEko hezkuntza-sistemari buruz egiten duten balorazioaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Euskadiko hezkuntza-sistemaren balorazioa positiboa da, eta antzekoa da kolektibo guztietan, lortutako ikasketa-maila dena delakoa izanda ere. Hain zuzen ere, 2016an, derrigorrezko ikasketak dituzten gazteen % 68,0k balorazio positiboa egin dute; derrigorrezko hezkuntzako ikasketen ondokoak dituztenen artean, % 69,0 da ehuneko hori; eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, % 65,0.

Bestalde, Lanbide Heziketako ikasketak egin dituztenek (erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloak) balorazio hobea ematen diete ikasketa horiei unibertsitate-ikasketak egin dituztenek unibertsitate-ikasketei ematen dietena baino. Hain zuzen ere, Lanbide Heziketako ikasketak egin dituzten 20 eta 29 urte arteko gazteen % 73,4ren iritziz, Euskadin egiten diren heziketa-zikloak oso onak edo nahiko onak dira. Unibertsitate-ikasketak dituzten 20 eta 29 urte arteko gazteei dagokienez, % 63,3k diote Euskadin ematen diren unibertsitate-ikasketak oso onak edo nahiko onak direla.

KAPITULUAREN LABURPENA

Euskadiko gazteek derrigorrezko mailatik goragoko ikasketak dituzte (% 5,4k baino ez dituzte ikasketak uzten derrigorrezko hezkuntzaren ondoren), eta 30 eta 34 urte arteko herritarren ia erdiek goi-mailako ikasketak dituzte (unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak egin dituzte), emakumeek gizonak baino gehiago.

Euskararen eta ingelesaren ezagutza handitu egin da, eta, horrekin, baita gazte hirueledunen ehuneko ere.


3. ENPLEGUA

3.1. Ikastea da 25 urtetik beherako gazteen okupazio nagusia; adin horretatik aurrera, lanean aritzen dira gehienak

16 eta 29 urte arteko gazteen erdiek baino pixka bat gehiagok ikastea dute okupazio nagusi. 20 urteko adinetik behera, % 93,2 ikasten ari dira, eta txikiak dira lana okupazio nagusitzat dutenen edo beren burua langabetzat hartzen dutenen ehunekoak. 20 eta 24 urte artekoen taldean, % 61,5 ikasten ari dira oraindik, baina esanguratsua da lana okupazio nagusitzat dutenen ehunekoa (% 29,6). Ikasten ari direnen ehunekoa asko jaisten da 25 urtetik aurrera. Adin horretan, gazteen % 18,1 dira ikastea okupazio nagusitzat dutenak. Adin-talde horretan, lana da gehienek okupazioa (% 65,1), eta % 11,4 langabezian daude.

3.1 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko gazteen okupazio nagusia, adin-taldeka, 2017an (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Krisia hasi zenetik, progresiboki gora egin du ikastea okupazio nagusitzat duten gazteen ehunekoa. 2017an, gora egin du lanean dihardutenen ehunekoak ere; 2013an izan zuen ehuneko horrek emaitzarik kaskarra. Halaber, nabarmentzekoa da langabezian dauden gazteen ehunekoaren beherakada handia: daturik apalena izan da 2000. urteaz geroztik.

3.2 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko gazteen okupazio nagusiaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta Emantzipazioa serieak)


3.2. Oraindik ere behera doa biztanle gazteen jarduera-tasa: 2018an, 16 eta 29 urte arteko pertsonen erdiak baino gutxiago daude lanean edo lan egiteko prest

Gazteen jarduera-tasaren bidez, 16 eta 29 urte arteko pertsonen taldean lanean ari diren edo lan egiteko prest dauden pertsonen ehunekoa neurtzen da. Tasa horren jaitsierak, halaber, adierazten du 30 urtetik beherako kolektiboaren prestakuntza-aldia luzatu dela. 2018an, 16 eta 29 urte arteko gazteen erdiak baino gutxiago daude biztanleria aktiboaren barruan (% 47,7). Gizonen eta emakumeen tasen arteko aldea oso txikia da (% 47,9 gizonak, eta % 47,5 emakumeak).

Euskadiko biztanleria osoaren jarduera-tasa % 56,5 izan da 2018an. Biztanleria osoaren jarduera-tasa, gazteen jarduera-tasa ez bezala, nahiko egonkorra izan da azken hamar urteetan.

3.3 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko biztanleria gaztearen eta 16 urteko eta hortik gorako biztanleria osoaren jarduera-tasaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)


30 eta 34 urte artekoen taldean egoera asko aldatzen da: talde horretan, gehiengoa dira biztanle aktiboak. 2018an, 30 eta 34 urte artekoen kolektiboaren jardura-tasa % 90,6 izan da, bost puntu handiagoa gizonen artean emakumeen artean baino (% 93,6 eta % 88,0, hurrenez hurren).

3.3. Enplegu-tasak, nahiz eta 2008a baino lehenagoko urteetako ehunekoak berreskuratu ez diren, hazkunde motela baina iraunkorra izan du azken hiru urteetan

Azken hamarkadan, izugarri jaitsi da gazte okupatuaren ehunekoa (hau da, lana dutenena). 2006an, gazteen % 54,9 lanean ari ziren, baina 2018an, gazteen % 40,3k soilik dute lana. 2013an izan zen gazteen enplegu-tasarik txikiena (% 35,5), eta, orduetik hona, balio horrek ia bost ehuneko-puntu egin du hobera.

3.4 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko biztanleria gaztearen eta 16 eta 64 urte arteko biztanleria osoaren jardura-tasaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Jardura-tasa eta enplegu-tasa alderatuz gero, ikusten da 2006an bi tasa horien arteko aldea 4,3 punturena zela; hau da, lan egin nahi zuten gazteen % 4,3k ez zuten enplegurik. 2018an, jardura-tasaren eta enplegu-tasaren arteko aldea 7,4 puntu da. 2016koarekin alderatzen badugu (hori da IV. Gazte Planaren oinarritzko lerroa), esan dezakegu hobera egin duela, garai hartan gazteen % 11,6k lan egin nahi bai baina ezin baitzuten.

2018an, gizonen eta emakumeen enplegu-tasa oso antzekoa izan da: gizon gazteen % 40,4 eta emakume gazteen % 40,2 dabilta lanean.

Enplegu-tasa bikoitza da 30 eta 34 urte artekoen taldean, % 78,9k lana baitute. Kolektibo horretan, gizonen tasak emakumeenak baino handiagoak dira (% 81,9 eta % 76,2, hurrenez hurren).


Zenbat eta ikasketa-maila altuagoa izan, orduan eta handiagoa da enplegu-tasa. Lan egiten duten gazteen ehunekoa handiagoa da goi-ikasketak dituztenen artean (unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako heziketa-zikloak) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak dituztenen artean baino (batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-zikloak) edo derrigorrezko ikasketak soilik dituztenen artean baino.

25 eta 34 urte eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean, 2017an, lana da % 79,9ren okupazio nagusia. Adin-tarte horren kolektiboan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak dituztenen % 58,5 ari dira lanean, eta oinarritzko ikasketak dituztenen % 55,6. 2015etik 2017ra arteko bilakaera positiboa

izan da goi-mailako ikasketak dituztenentzat eta soilik derrigorrezkoak dituztenentzat; bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak dituztenen artean, okupazioa zertxobait txikiagoa da.

3.5 grafikoa.

Lana okupazio nagusitzat duten 25 eta 34 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera, ikasketamailaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

3.4. Lanbide Heziketako ikasketak egin ondoren lanean hasi direnen ehunekoak hobera egin du 2017an: urtebete lehenago ikasketak amaitu zituztenen artean, % 78,7 da okupazio-tasa

2017an, urtebete lehenago Lanbide Heziketako erdi- edo goi-mailako ziklo bat bukatu zutenen okupazio-tasa % 78,7ra iritsi da, orain arteko daturik onena 2009tik.

3.6 grafikoa.

Ikasketak amaitu eta urtebetera Lanbide Heziketako promozioek izan duten okupazio-tasaren bilakaera (%)



Iturria: Lanbide (2017an Lanbide Heziketa bukatu dutenen lan-munduratzeara. 2016ko promozioa)

Honako hauek dira 2017an % 80tik gorako okupazio-tasa izan duten adarrak: Segurtasuna eta ingurumena (% 89,3), Fabrikazio mekanikoa (% 86,7), Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak (% 86,5),

Instalazioa eta mantentzea (% 86,4), Elikagai-industriak (% 85,7), Itsaso- eta arrantza-jarduerak (% 84,4) eta Elektrizitatea eta elektronika (% 82,2).

Pertsona hauen artetik, % 70ek diote enpleguak lotura zuzena edo nolabaiteko lotura duela egindako ikasketekin. Ehuneko hori aurreko urteetako baino handiagoa da. Bestalde, hileko batez besteko soldata garbia 1.002 eurokoa da.


3.5. 2017an, gora egin du unibertsitatea hiru urte lehenago bukatu zutenen enplegu-tasak

Unibertsitateko ikasleen promozioen lan-munduratzearen azterketa ez da egiten titulazioa lortzen den osteko urtean (hala egiten da Lanbide Heziketako promozioekin), baizik eta ikasketak amaitu eta hiru urteren buruan. Hori dela eta, ez da egokia emaitza hauek zuzenean alderatzea Lanbide Heziketako ikasketak egin dituztenen emaitzekin.

2014ko unibertsitate-promozioen artean, enplegua dutenak % 83,5 dira, 2017an egindako inkestaren arabera (ikasketak amaitu eta hiru urtera egin zen inkesta, hain zuzen). Datu hori altuena da 2009tik.

3.7 grafikoa.

Ikasketak amaitu eta hiru urtera EAEko unibertsitateetako promozioek izan duten enplegu-tasaren bilakaera (%)



Iturria: Lanbide, (2016an Unibertsitateko lan-munduratzeari buruzko inkesta. 2013ko promozioa)

Enplegu-tasarik altuena duten titulazioak hauek dira: osasunaren arlokoak (% 95,7) eta titulazio teknikoak (% 89,1). Batez bestekotik behera daude adar hauetako ikasketak: ekonomiko-juridikoak (% 82,3), gizarte-zientziak (% 80,4), giza zientziak (% 75,3) eta, azkenik, ikasketa esperimentalak (% 70,9).

Gizonen enplegu-tasa handixeagoa da emakumeena baino: % 85,1 eta % 82,2, hurrenez hurren. Bestetik, 2014ko promozio horrentzat, 2017ko inkestan enplegua dutela dioten artean, % 77k adierazi dute beren enpleguak lotura handia edo nahikoa duela egindako ikasketekin.

Azkenik, unibertsitateko tituludunen hileko batez besteko soldata garbia, lanaldi osoko enpleguetako 14 ordainketatan kalkulatu, 1.521 eurokoa da.


3.6. Gazteen langabezia-tasak behera egin du 2018an, % 15,5era. Beherakada hori askoz handiagoa da Espainia osokoa baino, eta Euskadiko gazteen langabezia-tasa Europako batezbestekora gerturatzen du.

2018an langabezia-tasa % 15,5ekoa izan da 16 eta 29 urte arteko gazteen taldean. Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren gainean kalkulatzen da; hots, lanean ari den edo, enplegurik izan gabe, lan egiteko prest dagoen eta inkesta egin aurreko lau asteetan lana bilatzeko kudeaketaren bat egin duen biztanleriaren gainean. Zifra absolutuetan, 2018an 19.800 gazte zeuden langabezian, eta 2016an 27.600 (hori da 2021era arte indarrean egongo den IV. Gazte Planaren oinarritzko lerroa).

Azken hamarkadan, gazteen langabezia-tasa biztanleria osoaren langabezia-tasaren bikoitza izatera iritsi da, baina, 2015etik, bi tasa horien arteko aldea murrizten ari da apurka-apurka.

3.8 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko biztanleria gaztearen eta biztanleria osoaren langabezia-tasaren bilakaera (%)




Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

30 eta 34 urte arteko pertsonen adin-taldean, 2018an, langabezia-tasa % 13 izan da, biztanleria osoaren batez besteko ehunekoa baino ia hiru puntu handiagoa, baina 16 eta 29 urte arteko gazteen langabezia-tasa baino bi puntu eta erdi txikiagoa.

Langabezia-tasak oso handiak izan diren urteetan, gizonek datu negatiboagoak zituzten emakumeek baino; bada, 2018an, sexuen arteko aldeak desagertu egin dira, eta gizon nahiz emakume gazteen langabezia-tasak behera egin du.

3.9 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Euskadiko gazteen langabezia-tasa ia hamahiru puntu txikiagoa da Espainiakoa baino, eta hurbil dago Europar Batasuneko 28 herrialdeek 2017an izan zuten batezbestekotik (urte horretakoak dira Espainiako eta Europako azken datuak). Hiru lurralde-eremuetan, langabezia-tasek behera egin dute 2014tik 2017ra.

3.10 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera Euskadin, Espainian eta 28en EBN (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA) eta EUROSTAT (Gazteei buruzko estatistikak)


3.7. Iraupen luzeko langabeziaren tasak behera egin du

Bestalde, gazteen iraupen luzeko langabeziaren tasak adierazten du 16 eta 29 urte arteko biztanleria aktiboaren zer ehunekok daraman ondoz ondoko hamabi hilabete baino gehiago langabezian. 2015etik 2018ra, ehuneko hori erdira gutxitu da: 2015ean, tasa % 10,7 zen, eta 2018an, berriz, % 5,0. Nolanahi ere, 2018ko datua 2012a baino lehenagoko balioen gainetik dago oraindik.

Egoera horretan gazte gutxi egoteak emaitzak kontuz hartzea eskatzen du, emaitzak laginketa-errore handi baten eraginpean daudelako. Halere, badirudi adierazle honetan beheranzko joera dagoela.

3.11 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko biztanleria gaztearen eta 16 eta 74 urte arteko biztanleriaren iraupen luzeko langabeziaren tasaren bilakaera (%)




Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

3.8. Aldi baterako enpleguek gora egin dute: 2018an, soldatapeko gazteen % 68,1ek dihardute behin-behinean

16 eta 29 urte arteko gazte soldatapekoen % 68,1ek aldi baterako kontratua dute. Euskadiko soldatapeko biztanle guztiak hartuta, % 30,7k dute aldi baterako kontratua. Tasa horrek 2009an izan zuen baliorik txikiena, krisiaren hasieran; orduz geroztik gora egin du, eta 2018an izan du segidako baliorik handiena. Gorakada hori orokorra izan da eta biztanleria osoan eragin du, baina eragin bereziki handia izan du gazteen kolektiboan.

3.12 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko soldatapeko biztanleria gaztearen eta biztanleria osoaren behin-behinekotasun tasaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Ez dago alde handirik gizon eta emakume gazteen artean, baina zertxobait handiagoa da behin-behinekotasun tasa emakume gazteen artean (% 70,2) gizon gazteen artean baino (% 66,2).

3.9. Lanaldi partzialeko enplegua % 30 inguruan egonkortu da azken urteetan; 2008ko datua halako hiru da hori. Emakume gehiagok jarduten dute lanaldi partzialean gizonek baino

Lanaldi partzialeko enpleguaren tasak asteen 30 ordutik beherako lanaldia duten 16 eta 29 urte arteko gazte landunen ehunekoa adierazten du. Gora egin du tasa horrek, eta 2018an, % 30,6 izan da.


Lanaldi partzialeko enplegua hedatuago dago pertsona gazteen artean biztanleria landun osoaren artean baino (% 17,7), eta, gainera, azken urteotan, alde hori areagotzen ari da.

Emakumeen eta gizonen arteko aldea nabarmena da: emakume gazte landunen % 39,6k dute lanaldi partziala, eta gizonen % 22,1ek.¹

¹ Egoera honetan gizon gazte gutxi daudela eta, emaitzak kontu handiz hartu beharrekoak dira, lagin errorea oso handia baita; hala ere, urteetan zehar ikusitako sexuen arteko aldeak joera hori horrelakoa dela balioztatzen du.

3.13 grafikoa.

Lanaldi partzialeko enpleguaren bilakaera 16 eta 29 urte arteko gazte okupatuen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Gazte europarren datuekin konparatzen baldin baditugu lanaldi partzialeko lana duten gazteen ehunekoak, ikusten dugu Euskadin Europar Batasuneko batezbestekotik gora daudela bai emakume gazteak bai gizon gazteak. Herbehereetako, Danimarkako eta Suediako gazteek dituzte, Europar Batasunean, lanaldi partzialeko lanaren ehuneko handienak.

Emakumeen eta gizonen arteko alde hori Europan ere gertatzen da. 28en EBn, batez beste, enplegu partziala % 23,1era iristen da: lanean ari diren emakume gazteen % 30,8k eta gizonen % 16,5ek dute lanaldi partziala.

Gazteen Euskal Behatokiaren datuen arabera (*Emantzipazioa* serietik ateratakoak), nahi gabeko lanaldi partzialak gutxitu egin dira 2015etik 2017ra, baina, oraindik ere, lanaldi partzialean dihardutenen % 45,6k diote lanaldi osoko enplegurik aurkitu ez dutelako aritzen direla lanaldi partzialean. Beste % 3,3k esaten dute enpresak ezarritako neurria izan dela, enplegua erregulatzeko espediente baten edo antzeko neurriren baten ondoriozkoa. Beste % 6,2k, berriz, esaten dute adingabekoak edo mendekotasuna duten senideak zaintzeko egiten duela lanaldi partziala. Horrela lan egiten duten gazteen % 21,4k diote lanaldi partzialean ari direla lana beste enpleguen batekin edo ikasketekin bateratzeko; % 8,6k adierazi dute nahiago dutela lanaldi partzialean lan egin, eta gainerako % 14,9ak beste arrazoi zehaztugabe batzuk eman dituzte.

Aurreko urteetako datuekin konparatuz gero, ikus daiteke behera egin duela lanaldi osoko lanik topatu ez dutelako lanaldi partziala duten gazteen ehunekoak.


Ehuneko horrek behera egin badu ere, Euskadin Europar Batasunean baino handiagoa da lanaldi hori nahi ez arren egiten duten gazteen ehunekoak; izan ere, Europan lanaldi partzialean lan egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 29,7k lanaldi osoko lanik topatu ez dutela argudiatu dute, eta Euskadin, berriz, % 45,6k.

3.10. 2017an igo egin da gazteen batez besteko soldata: hilean 1.000 euro baino zertxobait handiagoa da

Euskadin, lana duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen batez besteko soldata garbia hilean 1.093 euro izan da 2017an. Emakumeek gizonak baino batez besteko soldata txikiagoak dituzte; dena dela, 2017an murriztu egin da alde hori.

3.14 grafikoa.

16 eta 29 urte arteko gazte okupatuen batez besteko soldataren bilakaera, sexuaren arabera (€)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Lanaldi osoan lan egiten dutenen batez besteko soldatak lanaldi partzialean lan egiten dutenenak halako bi dira (1.288 eurokoa da lanaldi osokoena, eta 644 eurokoa lanaldi partzialekoena).


Lanaldi mota eta jaiolekua dira soldatan alderik handiena dakarten aldagaiak. Atzerrian jaiotakoek baino soldata nabarmen handiagoak dituzte Euskadin jaio direnek (batez beste, hilean 1.125 euro Euskadin jaiotakoek, eta hilean 891 euro atzerrian jaiotakoek).

3.11. Enplegu bideratuak gora egin du lan egiten dutenen artean: 10 gazte landunetik 6k beren prestakuntzarekin lotutako lan bat dute

Gazte okupatuen % 60,1ek adierazten dute beren lanak lotura nahiko edo oso handia duela egin dituzten ikasketekin; emakumeen kasuan, ehunekoa zertxobait handiagoa da gizonena baino.

3.15 grafikoa.

Lana okupazio nagusitzat duten 16 eta 29 urte arteko gazteen enplegu bideratuaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta Emantzipazioa serieak)

3.12. Norberaren konturako lana Europar Batasuneko batezbestekoa mantentzen da


Gazte okupatu gehienek (% 88,7k) besteren kontura lan egiten dute, eta horien artean sartzen dira kontratu mota oro dutenak, bai eta kontraturik gabe lan egiten dutenak ere.

Enpresa pribatuetan lan egiten dute horietako gehienek (% 73,8k). % 11,7k sektore publikoan lan egiten dute; zehazkiago, % 7,4 administrazioan aritzen dira, eta % 3,4, berriz, enpresa publikoren batean. Horrez gainera, kooperatibaren batean lan egiten dute % 4,1ek, irabazi-asmorik gabeko erakunde edo GK Eren batean % 1,5ek, etxeko lanen esparruan % 2,5ek, bestelako erakunderen batean lan egiten dutela esaten dute % 3,4k, eta gainerako % 2,9ak ez du erantzun.

20 eta 29 urte arteko gazte landunen artean, % 8,3k jarduten dute norberaren kontura lanean, hau da, autonomo edo enpresaburu gisa. Ehuneko hori eta 28en EBko herrialdeetako batezbestekoa (% 6,6) oso antzekoak dira.

3.16 grafikoa.

Norberaren konturako enpleguaren bilakaera 20 eta 29 urte arteko biztanleriaren artean, Euskadin eta 28en EBn (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea eta Emantzipazioa seriea) eta EUROSTAT (Gazteei buruzko estatistikak)

3.13. Laneko istripuen indizeak nabarmen egin du behera azken hamarkadan

16 eta 34 urte arteko 1.000 biztanle okupaturen artean lan-istripua izan eta baja hartu dutenen kopurua asko txikitu da 2006koaren aldean, baina, 2015etik, pixka bat gora egiten ari da modu jarraituan. 2017an, kopuru hori 1.000 pertsonako 41,7koa izan da.

Laneko istripuen indizea handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, gizonak lan egiten duten sektore motarengatik, hein handi batean.

3.17 grafikoa.

16 eta 34 urte arteko gazte okupatuen laneko istripuen indizearen bilakaera, sexuaren arabera (1000 pertsonako tasa)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, OSALANen datuak (*Laneko istripuen estatistikak*) eta EUSTATENak (*Biztanleria jardueraren arabera, BJA*) oinarri hartuta

KAPITULUAREN LABURPENA

16 eta 29 urte arteko gazteen erdiak ikasten ari dira, eta, beraz, haien jardura-tasa % 50etik beherakoa da. 2015etik 2018ra, lan egiteko prest dauden artean onera egin du enpleguak, eta, horrenbestez, langabezia-tasak behera egin du.

Lanean dabilen lan-baldintzei dagokienez, ikus daiteke behin-behinekotasuna handitu egin dela (16 eta 29 urte arteko soldatapeko hiru biztanletik bik aldi baterako kontratua dute), lanaldi partzialetan alde handia dagoela gizonen eta emakumeen artean (hamar emakumetik lauk lanaldi partzialean jarduten dute), eta ikasketekin lotutako lanak ugaritu egin direla.

4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA


4.1. Euskadiko gazteek gurasoekin bizitzeari uzten dioten batez besteko adina Europako altuenetakoa bat da

Euskadiko biztanleen batez besteko emantzipazio-adina 30 urteren ingurukoa da (29,6 hain zuzen), 15 eta 29 urte arteko gazteek emantzipatzeko egokitzat jotzen duten adina (23,6) baino sei urte beranduago.

Batez besteko emantzipazio-adin hori lau urte berantiarra da Europako batezbestekoa baino (26,0 urte).

4.1 grafikoa.

Batez besteko emantzipazio-adina Euskadin eta Europar Batasunean 2017an



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea) eta EUROSTAT (Gazteen buruzko datu estatistikoak)

Emantzipazio-adin berantiar hori dela eta, gazteek etxebizitza eskuratzeari dagokionez duten egoeraren diagnostikoa egiteko, adin-tarte handiagoa hartu da, 18 urtetik 34 urtera bitartekoa, hain zuzen ere.


4.2. 18 eta 34 urte arteko pertsonen emantzipazio-tasa % 37,9 da

Adin-tarte horretan, gazte emantzipatuak erdiak baino gutxiago dira. Nolanahi ere, alde handiak daude adinaren arabera: 25 urte bete aurretik, Euskadiko gazteen % 5,7 baino ez daude emantzipatuta; 25 eta 29 urte arteko taldean, % 37,5 dira; eta 30 eta 34 urte arteko taldean, berriz, gehienak emantzipatuta daude (% 72,7).

18 eta 34 urte arteko taldean, gehiago dira emakume emantzipatuak (% 43,8) gizon emantzipatuak baino (% 32,1).

4.2 grafikoa.

18 eta 34 urte arteko biztanleriaren emantzipazio-tasa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Datu hauen bilakaerari erreparatuz gero, ikusten da 2017ko emantzipazio-tasa 2007an hasitako serieko apalena dela.

Euskadiko emantzipazio-tasa hau Espainiako adin-talde beraren batezbestekoaren antzekoa da (% 39,3).

4.3 grafikoa.

18 eta 34 urte arteko biztanleriaren emantzipazio-tasaren bilakaera Euskadin eta Espainian (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

4.3. Etxebizitzaren garestitzea eta baliabide ekonomiko propioak izateko zailtasunak dira emantzipatzeko arazo nagusiak


Euskadin, etxebizitza librea salerosteko prezioak etengabe merkatu ziren 2007tik 2015era, baina, ordutik aurrera, garestitzen hasi ziren berriro. Edonola ere, 2017ko batez besteko salmenta-prezioa (202.534 euro) dezente txikiagoa da 2007an erregistratutakoa baino (279.702 euro). Alokairu libreko errenten batez besteko zenbatekoa ere txikitu egin zen 2008tik 2013ra, eta gerora garestitu egin da: 2017an, hilean 944 eurokoa zen.

Hori dela eta, 2017an, batez besteko soldataren parekoa duen soldatapeko 18 eta 34 urte arteko gazte batek soldataren % 52,6 erabili beharko luke hipoteka-mailegu baten lehen kuota berak bakarrik ordaintzeko (urte horretan kontratatutako hipoteka-kredituetako batez besteko iraupen-baldintzak eta interes-tasetako baldintzak kontuan hartuta), etxebizitza bat batez besteko prezio horretan erosi ahal izateko. Etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua deritzo horri. Alokatzeari hautatuz gero, hileko gastua handiagoa izango litzateke oraindik ere, pertsona horrek soldataren % 69,3 erabili beharko bailuke alokairu-errenta ordaintzeko (etxebizitza alokairuan hartzeko kostua).

Nolanahi ere, zifra horiek askoz handiagoak dira finantza-erakundeek kredituak emateko aholkatzen duten gehieneko zorpetze-maila baino (soldataren % 30).

4.4 grafikoa.

18 eta 34 urte arteko pertsona batek hileko hipoteka-kuota edo alokairu-errenta berak bakarrik ordaintzeko erabili beharko lukeen soldataren ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)


Emakumeek eta 30 urtetik beherako pertsonak esfortzu ekonomiko are handiagoa egin behar dute (haiek dituzte, batez beste, soldata txikiak). Gipuzkoan bizi diren pertsonak dituzte kostu handienak, lurralde horretan etxebizitza garestiago dagoelako.

Ikusita zer prezio duen etxebizitzak merkatu librean, dela erosteko, dela alokatzeko, eta gazteek soldataren zer ehuneko erabili beharko luketen hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko, ez da harritzekoa gazte gehienek aipatzea etxebizitza garesti egotea izan dela emantzipatzeko orduan izan duten arazo nagusia edo hori izango litzatekeela arazo nagusia emantzipatzeko erabakia hartuz gero. Emantzipatutako pertsonen erdiek baino gehiagok diote arazo hori izan dutela (% 58,8), eta emantzipatu nahi bai baina oraindik emantzipatu ez diren lau pertsonatik hiruk ere aipatzen dute hori (% 73,8).

Era berean, sarrera-iturri propioa izateko zailtasunak ere aipatu dituzte emantzipatu nahi bai baina oraindik emantzipatu ez diren 18 eta 34 urte arteko pertsonen erdiek baino gehiagok (% 63,4).

4.5 grafikoa.

Emantzipatzeko zailtasun nagusiak 18 eta 34 urte arteko pertsonen taldean, 2017an, emantzipazio-egoeraren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* seriea)

4.4. Alokatzearen aldeko aukerak gora egin du azken urteetan, asko, eta gazte gehienek emantzipazio-aukera nagusi bihurtu da

Alokairuan emantzipatutako 18 eta 34 urte arteko gazteen ehunekoa asko handitu da azken hamar urteetan: 2006an, gazte emantzipatuen % 19,0 soilik bizi ziren alokatutako etxebizitza batean, eta 2017an, ehuneko hori % 55,3ra iritsi da (2015eko balio berbera).

4.6 grafikoa.

Alokairuan emantzipatutako 18 eta 34 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (*Inkesta demografikoa*) eta Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* seriea)

Dena dela, azpimarratu behar da alokairuan bizi diren hiru gazte emantzipatutik batek esaten duela alokairua behin-behineko irtenbidea dela etxebizitza bat erosteko egoera optimoan egon arte (hau da, diru-sarrera nahikoak eta egonkorrak eduki eta hipoteka-maileru bat eskatzeko moduan egon arte).


4.5. Hipoteka edo alokairu-errenta ordaindu ahal izateko gehiegizko esfortzu ekonomikoa egiten duten gazte emantzipatuen ehunekoak behera egin du

2017an, 18 eta 34 urte arteko gazte emantzipatuen % 16,9k diote etxeko diru-sarreretatik % 40 baino gehiago erabiltzen dituztela hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko. Hori gehiegizko esfortzu ekonomikoa da. Gehiegizko esfortzua egiten dutenen ehunekoa murriztu egin da aurreko urteetakoarekin alderatuta.

Bestalde, emantzipatutako gazteen % 19,0k diote arazoak dituztela etxebizitza-gastuak ordaintzeko. Lehen aipatutako gastuez gain, beste ohiko gastu batzuk sartzen dira etxebizitza-gastuetan: argindarra, ura, gasa, jabekideen erkidegoaren komunitateko kuota eta abar. Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten gazteen ehunekoa jaitsi da 2013ko eta 2015eko ehunekoetatik.

4.7 grafikoa.

18 eta 34 urte arteko gazte emantzipatuen artean, gehiegizko esfortzu ekonomikoa egiten duten eta etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak dituztenen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko, 18 eta 34 urte arteko gazte emantzipatuen % 6,1ek familiarengandik diru-laguntza jasotzen dute aldizka, eta % 8,7k noizean behin.

KAPITULUAREN LABURPENA

Batez beste, Euskadiko gazteak 29 urte eta erdirekin emantzipatzen dira, nahiko luketen adinean baino sei urte geroago. Hori dela eta, 18 eta 34 urte artekoen taldean, erdiak baino gutxiago daude emantzipatuta.

Baliabide ekonomikoen falta eta etxebizitzaren garestitzea dira emantzipatzeko oztopo nagusiak; hain zuzen ere, etxebizitzaren batez besteko prezioak aintzat hartuta, bakarrik emantzipatu nahi duen 18 eta 34 urte arteko soldatapeko batek hileko soldataren erdia baino gehiago erabili beharko luke hipoteka-kuota ordaintzeko, eta are gehiago alokairu-errenta ordaintzeko.

5. OSASUNA

5.1. Gazte gehienek uste dute osasun ona dutela. Hala ere, ia bost gaztetik batek osasun-arazo kronikoak ditu eta ia hamar gaztetik batek antsietatea edo depresioa du

Erdipurdiko osasuna, osasun txarra edo oso txarra dutela dioten 15 eta 29 urte arteko gazteen portzentajea soilik % 2,4 da. Gizonek baino emakume gazte gehiagok uste dute osasun txarra dutela; halere, ehunekoak hain dira txikiak, sexuen arabera aldea ez baita horren esanguratsua.

Zenbat eta nagusiago, orduan eta gazte gehiagok diote ez dutela osasun ona: 15 eta 19 urte artekoen taldean, % 1,2k diote hori, eta 25 eta 29 urte artekoen taldean, berriz, % 3,9k.

Adierazle honek bilakaera positiboa izan du: 2002an % 5,8koa zen, eta 2018an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren EAEko Osasun Inkestaren arabera, % 2,4koa izan da.

Euskadin, erdipurdiko osasuna, osasun txarra edo oso txarra dutela dioten gazteen ehunekoa txikiagoa da Europako batezbestekoa baino (28en EBn, 2017an, % 9,0 zen 16 eta 29 urteko pertsonen artean).

5.1 grafikoa.

Osasun txarraren prebalentziaren bilakaera 15 eta 29 urte arteko gizon eta emakume gazteen artean (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta 2018)

15 eta 29 urte arteko gazteen % 18,3k osasun-arazo kroniko, etengabe edo iraupen luzeko bat du, edo maiztasun jakin batekin gertatzen dena (asma, diabetesa...), eta osasun-egoeraren adierazle honek ere bilakaera positiboa izan du 2002tik 2018ra: % 22,9tik % 18,3ra igaro da.

Hemen ere, osasun txarrarekin lotutako alderdiei dagokienez, emakumeek gizonek baino ehuneko handiagoak dituzte (gizon gazteek % 16,1 eta emakume gazteek % 20,7).

Osasun-arazo kronikoak ere progresiboki areagotzen dira adinarekin: 15 eta 19 urte artekoen % 15,1ek dituzte osasun-arazo kronikoak, 20 eta 24 urte artekoen % 17,1ek, eta 25 eta 29 urte artekoen % 22,2k.

5.2 grafikoa.

Osasun-arazo kronikoen prebalentziaren bilakaera 15 eta 29 urte arteko gizon eta emakume gazteen artean (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta 2018)

Galdeketaren aurreko lau asteetan, Euskadiko gazteen % 8,3k izan ditu antsietate- edo depresio-sintomak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestaren arabera. Emakume gazteen artean, % 11,4k izan dituzte antsietate- edo depresio-sintomak, eta gizonen artean, berriz, ehunekoa txikiagoa da (% 5,1).

2018an erregistratutako balioa hurrengo grafikoan erakusten den serieko txikiena da. Baliorik handiena 2013an erregistratu zen: Euskadiko gazteen % 13,7k adierazi zuten antsietate- edo depresio-arazoak izan zituztela inkesta egin aurreko hilabeteetan.

5.3 grafikoa.

Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentziaren bilakaera 15 eta 29 urte arteko gizon eta emakume gazteen artean (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta 2018)


5.2. Hamar gaztetik zortzik baino gehiagok jarduera fisiko osasungarria egiten dute

15 eta 29 urte arteko gazteen % 86,3k diote jarduera fisiko osasungarria egin dutela galdeketaren aurreko astean, dela modu neurritsuan, dela intentsitate handiz. Gazteen jarduera fisikoak, kirola egitea baino modu zabalagoan ulertuta, progresiboki gora egin du 2007tik (% 67,6) 2013ra (% 75,3) eta 2018ra (% 86,3).

Jarduera fisiko osasungarria egiten duten gizon gazteen ehunekoa pixka bat handiagoa da emakumeena baino, eta jarduera fisikoa zertxobait hedatuago dago 25 eta 29 urte artekoen adin-taldean.

5.4 grafikoa.

Jarduera fisiko osasungarria egitearen aldeak 15 eta 29 urte arteko gazteen artean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta 2018)


5.3. Obesitate-tasak behera egin du 2013 eta 2018 artean

15 eta 29 urte arteko gazteen % 4,2 obesoak dira; hau da, haien gorputz-masaren indizea 30etik gorakoa da. Gazte obesoaren ehunekoa % 3,4tik % 4,2ra areagotu zen 2002tik 2007ra, eta % 5,4ra 2013an, eta berriro ere % 4,2ra jaitsi da 2018an. Nolanahi ere, gazteen artean, pertsona obesoaren ehunekoa dezente txikiagoa da Euskadiko biztanleria osoaren artean baino (% 12,5).

Behe-klaseko edo klase ertain baxuko gazteen artean handiagoak dira obesitate-zifrak goi-klaseko edo klase ertain altuko gazteen artean baino (% 4,6 eta % 3,8, hurrenez hurren). Obesitatean eragin handiagoa du gizarte-klaseak, sexuak edo adinak baino.

5.5 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen obesitate-tasaren bilakaera, eta tasa horren eta biztanleria osoaren tasaren arteko alderaketa (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea)

5.4. Bost gaztetik batek alkohol gehiegi edo modu arriskutsuan kontsumitu du galdeketaren aurreko hilabeteko egunen batean


2017an (Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko adikzioei buruzko inkesten serieko azken txostena), 15 eta 29 urte arteko biztanleen % 20,3k alkohol gehiegi edo modu arriskutsuan kontsumitu zuten galdeketaren aurreko hilabetearen. Horrek esan nahi du hilabete horretako egunen batean (laneguna edo jaieguna izan) 65 gramo alkoholetik gora kontsumitu zituztela (zortzi kaña garagardo baino gehiago, esaterako).

2017an, alkohol gehiegi edo modu arriskutsuan kontsumitu zutela zioten gizon gazteen ehunekoak (% 25,3) emakumeena baino askoz handiagoa zen (% 15,3).

Kontsumo gehiegizko edo arriskutsu hori pixkanaka gutxituz joan da 2004tik, eta 2017an izan du ordutik erregistratutako baliorik txikiena.

5.6 grafikoa.

Galdeketaren aurreko hilabeteko egunen batean alkohol gehiegi edo modu arriskutsuan kontsumitu duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta, 2017)

5.5. Tabakoaren kontsumoak behera egin du eta biztanleria osoaren batezbestekoaren azpitik jarraitzen du

15 eta 29 urte arteko gazteen ia bostenak (% 18,5) ohiko tabako-erretzaileak dira. Gizon gazte erretzaileak zertxobait gehiago dira emakume erretzaileak baino (% 18,9 eta % 18,2, hurrenez hurren).

2006tik 2017ra bitartean, hogei puntu baino gehiago jaitsi da ohiko tabako-erretzaileak direla dioten gazteen ehunekoa: % 40,4koa zen 2006. urtean eta % 18,5koa, berriz, 2017an.

2012ra arte, ohiko erretzaileen ehunekoa handiagoa zen gazteen artean 15 eta 74 urte arteko biztanleria osoaren artean baino. 2012an, lehen aldiz, handiagoa izan zen ohiko erretzaileen ehunekoa biztanleria osoaren artean (% 25,7) gazteen artean baino (% 23,5), eta joera horri eutsi zaio 2017an ere (gazteen % 18,5 eta 15 eta 74 urte artekoen % 22,1).

Tabakoa kontsumitzen hasteko adina, batez beste, 16,9 urte izan zen 2017an.

5.7 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko ohiko erretzaileen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta, 2017*)


5.6. Kalamuaren ohiko kontsumoak ere nabarmen egin du behera, eta egonkor mantendu da 2012 eta 2017 artean

2017an, 15 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteen % 4,2k zioten kalamua egunero edo ia egunero (asteen lau egunetan edo gehiagotan) erre zutela inkestaren aurreko hilabeteen. Alkoholarekin edo tabakoarekin gertatzen den bezala, kalamuaren kontsumoa hedatuago dago gizon gazteen artean (% 7,3) emakume gazteen artean baino (% 1,0).

Kalamuaren kontsumoa hedatuago dago gazteen artean Euskadiko biztanleria orokorrean baino. Nolanahi ere, kontsumoa asko murriztu da: 2017an, kalamua asteen 4 egunetan edo gehiagotan erretzen zutela ziotenak askoz ere gutxiago ziren 2008an baino. Hain zuzen, 2008an izan zen kalamuaren kontsumoaren ehunekorik handiena (% 11,0). Kalamua erretzen hasteko batez besteko adina ez da askorik aldatu azken urteotan, eta 2017an 2012ko balio berean mantentzen da: 18,6 urte.

5.8 grafikoa.

Egunero edo ia egunero kalamua erretzen duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta, 2017*)


5.7. 15 eta 29 urte arteko gazteen % 3,7k jarrera arriskutsua dute jokoari dagokionez

2017an, 15 eta 29 urte arteko gazteen % 3,7k gehiegi edo modu arriskutsuan jokatzeko edo apustu egiten dute. Ehuneko hau handitu egin da 2012az geroztik; orduan, % 2,1ekoa zen.

Substantzia eta jokabide arriskutsu guztiekin gertatzen den moduan, gizonen ehunekoak handiagoak dira emakumeenak baino (% 6,5 eta % 0,8, hurrenez hurren). Are, 2012tik 2017ra izan den gorakada gizonen ehunekoaren areagotzearen ondorioa da (% 3,5etik % 6,5era), eta gehiegi edo modu arriskutsuan jokatzeko duten emakumeen ehunekoa oso-oso txikia da, hala 2012an nola 2017an.

5.9 grafikoa.

Gehiegi edo modu arriskutsuan jokatzeko duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta, 2017*)

5.8. 15 eta 29 urte arteko gazteen % 12,2k sexu-harreman arriskutsuren bat izan dute azken urtean

2016an, 15 eta 29 urte arteko nesken % 10,8k adierazi zuten aurreko urtean sexu-harremanen bat izan zutela, nahi gabe haurdun geratzeko edo sexu-transmisiozko gaixotasunen bat harrapatzeko arriskuarekin. Adin bereko mutilen artean, ehuneko hori zertxobait handiagoa da: % 13,7.

5.10 grafikoa.

Galdeketaren aurreko urtean sexu-harreman arriskutsuren bat izan duten Euskadiko gazteen ehunekoak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)

Datu horien bilakaerari erreparatuta, ikusten da inkestaren aurreko urtean sexu-harreman arriskutsuren bat izan duten gazteen ehunekoak behera egin duela: % 18,4 zen 2012an, eta % 12,2, berriz, 2016an. Jaitsiera hori antzekoa izan da emakume eta gizon gazteen artean.

5.11 grafikoa.

Galdeketaren aurreko urtean sexu-harreman arriskutsuren bat izan duten Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

5.9. 15 eta 29 urte arteko gazteen artean, GIBak eragindako infekzio berrien tasak azken urteetako baliorik apalena izan du, 10.000 pertsonako 1,0

2016an, 15 eta 29 urte arteko pertsonen artean, GIBak eragindako infekzio berrien kasuak 27 izan ziren, hau da, urte horretako infekzio berri guztien % 17,1.

GIBak eragindako infekzio berrien tasa kalkulatz gero, ikusten da adin-tarte horretan tasa hori 10.000 pertsonako 1,0koa dela. 2008. urtetik aurrera, adierazle hau 10.000 pertsonako 1etik gora dago.

GIBak eragindako infekzio berrien tasa handiagoa da gizon gazteen artean (10.000 gizonezko 1,5) emakume gazteen artean baino (10.000 emakumezko 0,4). Tasa horrek gora egiten du adinak gora egin ahala: 15 eta 19 urte artekoen taldean, 10.000 gazteko 0,3 da; 20 eta 24 urte artekoen taldean, 10.000 gazteko 0,8; eta 25 eta 29 urte artekoen taldean, 10.000ko 1,6.

2016an, aurreko urteetan bezala, GIBak eragindako infekzio berrien tasa handiagoa da 30 urtetik beherako gazteen artean biztanleria osoan baino (10.000 biztanleko 0,7), baina aipatu behar da infekzio berrien kopuru handiena 30 eta 39 urte artekoen taldean gertatzen dela; izan ere, GIBa detektatzeko batez besteko adina 38 urte da.

5.12 grafikoa.

Euskadiko gazteen artean GIBak eragindako infekzio berrien tasaren bilakaera, sexuaren arabera (10.000ko tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (HIESaren Prebentzio eta Kontrolerako Plana)


5.10. Nerabazaroko haurdunaldien tasa bere horretan mantendu da

Nerabazaroko haurdunaldien tasak 15 eta 17 urte arteko emakumeen artean urtebetean jaio diren haurren kopurua eta borondatez eten diren haurdunaldien kopurua biltzen ditu, adin-tarte bereko 1.000 emakumeko. 2016an, tasa hori mila emakumeko 6,7 izan zen. Tasa hori ere jaitsi egin da 2012ko tasaren aldean: urte hartan, milako 9,7 zen.

2016an, nerabazaroko haurdunaldien tasa askoz handiagoa izan zen atzerriar nazionalitatea duten nesken artean (milako 32,6), espainiar nazionalitateko nesken artean baino (milako 4,8).

5.13 grafikoa.

Euskadiko 15 eta 17 urte arteko nesken nerabezaroko haurdunaldien tasaren bilakaera, nazionalitatearen arabera (1.000ko tasa)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuak (*Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa*) eta EUSTATenak (*Biztanleen udal-estatistika*) oinarri harturik

5.11. Azken hamarkadan, nabarmen gutxitu dira zirkulazio-istripuengatiko heriotzak


15 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteen heriotza-tasa (edozein kausagatik) 100.000 gazteko 24 heriotzakoa izan zen 2016an (urte horretakoak dira azken datuak).

15 eta 29 urte artekoen taldean, zirkulazio-istripuengatiko heriotza-tasa adin-tarte horretako 100.000 gazteko 3,2koa izan zen 2016an. Hamar urtetan, tasa horrek behera egin du, nabarmen: 2003an, 17,9 zen, eta 2016an, berriz, 3,2. Jaitsiera hori orokorra izan da, eta Euskadiko biztanleria osoan ere hauteman da (2016an, tasa orokor hori gazteen tasaren antzekoa zen: 100.000 biztanleko 3,4).

Nork bere buruaz beste egiteagatiko edo nork bere buruari egindako lesioengatiko heriotzen tasa handiagoa da zirkulazio-istripuengatiko heriotzen tasa baino: Euskadin, 2016an, 15 eta 29 urte artekoen taldean, 100.000 pertsonako 4,2koa izan zen. Nork bere buruaz beste egiteagatiko heriotzen tasa txikiagoa da gazteen artean Euskadiko biztanleria osoaren artean baino (100.000 biztanleko 7,7).

5.14 grafikoa.

Nork bere buruaz beste egiteagatiko edo zirkulazio-istripuengatiko heriotzen tasaren bilakaera 15 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteen artean (100.000ko tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Hilkortasunaren erregistroa)

Kasu bietan, tasak handiagoak dira gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino: 2016an zirkulazio-istripuengatiko heriotzen tasa 100.000 pertsonako 4,8koa izan zen gizon gazteen artean eta 1,4koa emakume gazteen artean, eta nork bere buruaz beste egiteagatik heriotzen tasa 100.000 gazteko 4,8koa izan zen gizon gazteen artean eta 100.000 gazteko 3.6koa emakume gazteen artean.

5.15 grafikoa.

Zirkulazio-istripuengatiko heriotzen tasaren bilakaera 15 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteen artean (100.000ko tasak)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Hilkortasunaren erregistroa)

KAPITULUAREN LABURPENA

Gazte gehien-gehienek osasun ona dute eta jarduera fisiko osasungarria egiten dute; halere, bost gaztetik batek dio arazo kronikoren bat duela, eta ia hamar gaztetik batek esaten du antsietate- edo depresio-gertakariren bat izan duela azken hilabeteen.

Gazteen obesitate-tasa apaldu egin da, baita osasunerako arriskutsuak diren jokabideak ere: erretzea, alkohola gehiegi edo modu arriskutsuan kontsumitzea, kalamua kontsumitzea eta sexu-harreman arriskutsuak edukitzea, besteak beste. Nerabezaroko haurdunaldien tasa egonkor mantendu da, eta batik bat emakume atzerritarrei eragiten die.

6. GIZARTE-EKINTZA ETA BERDINTASUNA

6.1. 16 eta 29 urte arteko pertsonen erdiek 300 euro baino gutxiago dituzte hilean, eta adin horretako gazteen herenak baino gutxiago iristen dira 600 eurora

16 eta 29 urte arteko gazteen % 48,3k hilean 300 euro baino gutxiago dituzte; % 13,0k hilean 301 eta 600 euro artean dituzte; % 9,4k, 601 eta 900 euro artean; % 8,4k, 901 eta 1.200 euro artean; eta % 13,6k, berriz, 1.200 euro baino gehiago. Gainerakoek (% 7,3) ez dute erantzun hilean batez beste zenbat diru izaten duten galdetu zaienean.

Datu horien arabera, 2017an, 16 eta 29 urte arteko gazteen herenek baino zertxobait gutxiagok dituzte 600 eurotik gora hilean (% 31,4).

Enpleguaren bilakaerak zerikusi zuzena dauka hilean 600 eurotik gorako erabilgarritasun ekonomikoaren adierazlearekin. Krisi ekonomikoa hastearekin batera, gazteen diru-sarrerak behera egin zuten. 2013an jo zuten behera, eta 2015ean zertxobait berreskuratu ziren, enpleguak hobera egitearekin bat. 2017an pixka bat murriztu da hilean 600 eurotik gora dituzten gazteen ehunekoa, enplegu-tasak gora egin duen arren.

6.1 grafikoa.

Enplegu-tasaren eta hilean 600 euro baino gehiago dituzten 16 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* seriea) eta EUSTAT (*Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA*)


6.2. Ekonomiari dagokionez, gazte gehienak familiaren mende daude; 16 eta 29 urte arteko gazteen laurdenek soilik diote ekonomikoki independenteak direla

2017an, 16 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteen % 54,4 familiaren diru-sarreretatik bizi dira (hau da, gurasoen, anai-arreben eta abarren diru-sarreretatik), eta % 19,4k familiaren diru-sarrerekin osatu behar dituzte beren diru-sarrerak.

Gazteen % 15,7 baino ez dira bizi soilik beren diru-sarreretatik. Gazteen % 5,2 beren diru-sarreretatik eta bikotekidearen diru-sarreretatik bizi dira, erdi bana. Eta % 4,1ek adierazten dute bikotekidearen diru-sarreraren mende daudela, erabat, bizitzeko. Egoera hori hedatuago dago emakumeen artean (% 6,4) gizonen artean baino (% 2,0), eta desparekotasunezko eta menpekotasun ekonomikoko egoerak sortzen dira, emakume gazteen kalterako. Guztira, 30 urtetik beherako gazteen laurdenek (% 25,0) diote beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla; hau da, ez daudela familiaren mende (gurasoak...).

6.2 grafikoa.

Jatorriko familiarekin mendekotasun ekonomikorik ez duten 16 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera, zer diru-sarreretatik bizi diren bereizita (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta Emantzipazioa serieak)

6.3. Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoak gora egin du krisi ekonomikoaren ondorioz

2016an, pobrezia errealeko egoeran zeuden 16 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa (adin-tarte horretako gazte guztiekiko) % 8,1 zen. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren *Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta*-ko metodologiaren arabera, pobrezia erreala deritzo elikadurarako, etxebizitzarako, jantzietarako eta oinetakoetarako gastuei aurre egiteko behar adina baliabide ekonomikorik (diru-sarrerak eta ondarea) ez izatearen egoerari.


16 eta 29 urte arteko gazteen taldean, pobrezia errealeko egoeran dauden ehunekoak gora egin du 2008tik aurrera. Bilakaera ez da berdina izan hiru lurralde historikoetan. 2016an, Arabak zuen pobrezia-tasarik handiena (% 17,8), Gipuzkoakoa (% 6,8) eta Bizkaikoa (% 6,3) baino askoz handiagoa.

Oro har, gazteen pobrezia errealaren tasa handiagoa da Euskadiko biztanleria osoarena baino (2016an, % 5,7). 2008tik aurrera, gazteen pobrezia-tasak biztanleria osoarenak baino handiagoak izaten hasi ziren, ordura arte batezbesteko orokorra baino txikiagoak izan baitziren.

Bestalde, pobrezia-tasa hori handiagoa da emakume gazteen artean (% 8,8) gizon gazteen artean baino (% 7,5).

6.3 grafikoa.

Pobrezia errealeko egoeran dauden 16 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (*Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta*)

6.4. 16 eta 29 urte arteko gazteen % 2,0k DBE jasotzen dute


2017ko urtarrilean Diru-sarrerak Bermatzeko Errentako (DBE) laguntzetan aktibo dauden espedienteek erreparatuz gero, ikusten da 5.375 espediente dagozkiola 16 eta 29 urte artekoen adin-taldeari; hau da, Euskadiko biztanleria osoaren taldean aktibo dauden espediente guztien % 8,5.

Datu horien arabera, ikusten da 16 eta 29 urte arteko gazteen % 2,0 prestazio horren onuradun direla (ehuneko hori DBE jasotzen dutenen tasa dela esan daiteke). Emakumeen pobrezia-tasa handiagoarekin lotuta, handiagoa da DBE jasotzen duten emakume gazteen ehunekoa (% 2,4) laguntza hori duten gizon gazteena baino (% 1,7).

Hala ere, laguntza hori ez da pobrezia-kasu guztietara heltzen; izan ere, adin-tarte horretan pobrezia errealeko egoeran dauden gazteen ehunekoa (2016an, % 8,1) DBE jasotzen duten gazteen ehunekoa baino dezente handiagoa da.

6.4 grafikoa.

Pobrezia errealeko egoeran dauden 16 eta 29 urte artekoen tasaren eta DBE jasotzen duten 16 eta 29 urte artekoen tasaren arteko alderaketa, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren datuak (*Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta* eta Lanbideren DBEri buruzko estatistikak) eta EUSTATen biztanleriari buruzko datuak oinarri hartuta.

Argi dago gizarte-laguntzak ez direla nahikoak gazteen premiak betetzeko, eta familia dela gazte askok dituzten zailtasunak arintzen dituen koltxoi ekonomikoa.

6.5. 15 eta 29 urte arteko 1.000 emakumetik 8,4k salaketa jarri dute genero-indarkeriaren ondorioz, 2009tik aurrerako tasarik handiena

Euskadin, 2017an, emakumeen kontrako indarkeriaren tasa globala 8,4 izan da, 15 eta 29 urte arteko 1.000 emakumeko. 2016koa baino tasa handiagoa da hori: orduan, 30 urtetik beherako 1.000 emakumetik 7,5ek jarri zuten salaketa.


Kasu gehienetan, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria izan ohi da (2017an, 877 emakume gaztek jarri zuten salaketa arrazoi horregatik). Sexu-askatasunaren aurkako delituen ondoriozko salaketek izan zuten gorakadarik handiena 2017an: 166 emakume gaztek jarri zuten salaketa, hau da, aurreko urtean baino % 58 gehiagok. Azkenik, 2017an, 142 emakume gaztek jarri zuten salaketa familia barruko indarkeriaren ondorioz.

2017an, emakumeen aurkako indarkeriaren tasa handiagoa da 15 eta 29 urte arteko emakumeen kolektiboan (1.000 emakumeko 8,4) 30 urteko eta adin horretatik gorako emakumeen artean baino (1.000 emakumeko 3,4).

Emakume gazteen tasak handiagoak dira 29 urtetik gorako emakumeenak baino, segida osoan. Horrek ez du nahitaez esan nahi emakume gazteek genero-indarkeria handiagoa jasaten dutela, baizik eta emakume gazteek neurri handiagoan salatzen dituztela egoera horiek, tasa horren bidez salaketa jarri duten emakumeak zenbatzen baitira.

6.5 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko emakumeen eta 30 urteko eta adin horretatik gorako emakumeen aurkako indarkeriaren tasaren bilakaera (milako tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

6.6. Areagotu egin da bikote barruan izan daitezkeen indarkeria-forma guztien larritasunaren gaineko kontzientzia

Kontuan hartuta emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako salaketa gehienak bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin lotuta daudela, egokia da aztertzea zer-nolako larritasun-maila ematen dioten gazteek bikotearen barruan gerta daitezkeen indarkeria-formei (indarkeria fisikoaz gain).


Adierazitako indarkeriazko edo tratatu txarreko formatatik, Euskadiko gazteek uste dute gogoz kontra sexu-harremanak izatera behartzea dela larriena. 2016an, 15 eta 29 urte arteko emakumeen % 97,8k eta adin-tarte horretako gizonen % 95,6k uste zuten indarkeria-forma hori tratatu txarreko oso modu larria zela. Forma horren atzetik, larritasun-mailaren arabera, indarkeria-forma hauek daude: etxetik irtetea debekatzea, mehatxuak egitea, mespretxatzea, erabakiak hartzen ez uztea eta iraintzea.

Kasu guztietan, gehiago dira tratatu txar horiek oso larritzat jotzen dituzten emakumeak iritzi bera duten gizonak baino.

Tratatu txarren forma horiek guztiak oso larritzat jotzen dituzten gizon eta emakume gazteen ehunekoak gora egin dute 2012tik 2016ra.

6.6 grafikoa.

Adierazitako tratatu txarren forma horietako bakoitza oso larritzat jotzen duten gizon eta emakume gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

6.7. 15 eta 29 urte arteko hiru emakumetik bati beldurra ematen dio gauean herrian edo auzoan bakarrik ibiltzeak


Orain arte, pentsatu izan da hiri-segurtasunaren pertzepzioa homogeneoa zela biztanleria osoan. Hala ere, azken hamarkadetan argi eta garbi ikusi da gizonak eta emakumeak oso modu desberdinean bizi dituztela hiri-indarkeriaren modu ugariak (sexu-erasoak, ahozko erasoak, lapurretak, beldurrarazteak eta abar).

Emakume gazteen % 34,2ri beldurra ematen die bizi diren herrian edo auzoan gauez bakarrik ibiltzeak. 15 eta 29 urte arteko gizonen artean, berriz, ehuneko hori % 3,9 da. Emakume bat gauez kalean lasai ezin ibiltzea emakumeen aurkako beste indarkeria-forma bat da.

Emakume gazteek aurreko urteetan baino beldur handiagoa diote orain gauez bakarrik ibiltzeari, eta, aldi berean, handitu egin da beldurraren pertzepzioan emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea.

6.7 grafikoa.

Gauez herrian edo auzoan ibiltzeaz beldur diren 15 eta 29 urte arteko emakume eta gizon gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak seriea*)

Aztertutako urte guztietan, ikusi da 15 eta 19 urte arteko neskek adierazten dutela beldur handiena: 2016an, adin horretako nesken % 43,5ek zioten beldurra ematen ziela gauez kalean bakarrik ibiltzeak.


Aipatu behar da, edonola ere, hezkuntza- eta sozializazio-prozesuan emakumeei gizonei baino neurri handiagoan irakasten zaiela gauez bakarrik ibiltzeko beldur izan behar dutela eta tentuz ibili behar dutela kanpo-erasorik ez izateko.

6.8. Lana eskuratzeko orduan ere agerian jartzen dira gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak; emakume gazteen % 27,6k diote gizonak aukera gehiago dituztela lana lortzeko

2016an, nesken % 27,6k uste dute, aukeraketa prozesuan, prestakuntza eta esperientzia bereko gizon baten eta emakume baten artean, mutilak izango lituzkeela aukera gehiago lana lortzeko, mutila izateagatik; mutilen % 21,2k iritzi bera dute. Nesken % 8,3k eta mutilen % 9,7k soilik uste dute emakumeak aukera gehiago izango lituzkeela, emakume izateagatik. Hala ere, gazte gehienek uste dute izangaien sexuak ez lukeela eraginik izango. Ideia hori hedatuago dago mutilen artean (% 63,0) nesken artean baino (% 58,4).

6.8 grafikoa.

Lana lortzeko prozesuetan diskriminatua izatearen sentsazioaren bilakaera 15 eta 29 urte arteko pertsonen taldean, sexuaren arabera eta zeinek izango lituzkeen aukera gehiago bereizita (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)


6.9. Gero eta gehiago dira sexu berekoen arteko ezkontzak eta sexu-aldaketak onartzearen alde daudenak

2008tik 2016ra, gora egin du sexu berekoen arteko ezkontzen alde daudenen ehunekoak, bai eta sexu-aldaketaren alde daudenen ehunekoak ere.

Bilakaera hori nabarmenagoa izan da gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino, baina, hala ere, handiagoak dira alde daudenen emakumeen ehunekoak.

6.9 grafikoa.

Sexu berekoen arteko ezkontzak eta sexu-aldaketak onartzearen alde dauden gizon eta emakume gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

KAPITULUAREN LABURPENA

16 eta 29 urte arteko gazte gehienak familiaren mende daude ekonomikoki, eta familia da pobrezia geldiarazteko koltxoia. Izan ere, pobrezia, oraindik gazteen artean minoritarioa bada ere, gero eta neurri handiagoan eragiten dio gazterari biztanleria osoari baino.

Genero-indarkeriaren ondoriozko salaketak ugaritu egin dira emakume gazteen artean, eta, halaber, gero eta jende gehiagok jotzen ditu oso larritzat indarkeria-modu desberdinak, hala agerikoak nola ikusezinak.

7. PARTE-HARTZEA ETA KONTSUMOA

7.1. 15 eta 29 urte arteko gazteen asoziazionismo-tasak gora egin du

Parte-hartze sozialaren funtsezko formetako bat elkarteetan parte hartzea da (asoziazionismoa). Elkarre horiek mota askotako helburuak izan ditzakete: helburu politikoak, aisiakoak, kulturalak eta abar, baina termometro egokia izan daitezke gizarte batean zenbaterainoko parte-hartzea dagoen neurtzeko.

2016an, Euskadiko gazteen % 46,2 elkarteren bateko kide ziren, batez ere elkarre-mota hauetakoak: kirol- edo mendi-elkarreak (gazteen % 23,8), aisialdirako elkarreak (% 12,7), kultura- edo arte-elkarreak (% 8,0), gazte-elkarreak edo denbora librekoak (% 7,8), musika-taldeak edo abesbatzak (% 5,3) eta elkarre politikoak (% 4,1).

Kirol-elkarreetan mutilek neskek baino presentzia handiagoa dutenez, mutilen asoziazionismo-tasa neskena baino askoz handiagoa da (% 51,7 eta % 40,5, hurrenez hurren).

7.1 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen asoziazionismo-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea)

7.2. Boluntario-jarduerak egiten dituzten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoak ere gora egin du


Elkartekide izateak baino inplikazio pertsonal handiagoa eskatzen duen parte-hartze sozialaren beste forma bat boluntario-jarduerak egitea da (betiere elkartekide izateak elkarre barruan aktiboki parte hartzea ez badakar).

Gazteen Euskal Behatokiak aldian-aldian egiten duen *Euskadiko gazteak* seriearen barruan, boluntario-jardueratzat hartzen dira beste pertsona batzuen edo komunitatearen zerbitzura edo haiei laguntzeko borondatez eta ordainsaririk jaso gabe egiten diren jarduerak, gutxienez astean ordubetez modu jarraituan egiten direnak edo denboraldi labur batean arduraldi eskusiboz edo ia eskusiboz egiten direnak.

2012tik 2016ra bitartean, nabarmen handitu da boluntario-lanak egiten dituztela dioten gazteen ehunekoa, zehazki % 6,5etik % 11,5era. Boluntario-jardueretan parte hartzen duten emakume gazteen ehunekoa gizon gazteena halako bi da ia (% 15,1 eta % 8,0, hurrenez hurren); izan ere, boluntario-lanetan parte hartzen duten emakumeen kopuruaren gorakada handiagoa izan da gizonena baino.

7.2 grafikoa.

Boluntario-jarduerak egiten dituzten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea)

Elkarteren bateko kide diren gazteek neurri handiagoan egiten dituzte boluntario-lanak elkartekide ez direnek baino (% 21,3 eta % 3,1 hurrenez hurren, 2016an).


7.3. 2008tik 2016ra, bikoiztu egin da politikan interesa duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa

2016an, hamar gaztetik lauk diote interes handia edo nahikoa dutela politikan. 2008tik bikoiztu egin da interes handia edo nahikoa duten gazteen ehunekoa. Nolanahi ere, politikarako interesa txikia da oraindik, eta ez gazteen artean bakarrik: biztanle guztietatik, oso gutxi diote interes handia edo nahikoa dutela politikan (% 29k, hain zuzen ere, 2016an, 18 urteko eta adin horretatik gorako biztanleen artean, Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako 60. *Euskal Soziometroa* azterketako datuen arabera).

Emakumeen aldean gizon gazte gehiagok diote politikan interesa dutela (% 35,6 eta % 42,5 hurrenez hurren, 2016an).

7.3 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteek politikan duten interesaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak seriea*)

7.4. 15 eta 29 urte arteko hamar gaztetik lauk nahiko lukete parte-hartze aktiboagoa izan gai publikoetan

2016an, 30 urtetik beherako gazteen % 42,2k diote parte-hartze aktiboagoa izan nahiko luketela gai publikoetan. Ehuneko hori 2012an erregistratutakoaren antzekoa da, eta 2000tik 2008ra bitartekoak baino askoz handiagoa.

2016an, gai publikoetan gehiago parte hartu nahiko luketen gizonen kopurua eta emakumeena antzekoa da.

7.4 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteek gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izateko nahiaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak seriea*)

Bestalde, adierazi behar da gazteen % 7,7k uste dutela jada nahikoa parte hartzen dutela.

Bizitza politikoan parte-hartze aktiboagoa izateko nahi hori ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu gazte gehienek (% 63,0) diotela gure gizarte-eredua aldatzea nahi dutela, dela erreforma sakonen bidez dela errotiko aldaketa baten bidez.

7.5. Immigranteak etortzearen aurkako jarrerak behera egin du


2004tik 2012ra, Euskadin atzerritar gehiegi zeudelako iritziak indar gero eta handiagoa hartu zuen gazteen artean, bai eta Euskadiko gainerako biztanleen artean ere. Alabaina, 2016an jende gutxiagok du iritzi hori. 2016an, atzerritar gehiegi daudela uste dutenen ehunekoa txikiagoa da gazteen artean (% 29,4) 18 urtetik gorakoen artean baino (% 36,0, Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak plazaratutako 60. *Euskal Soziometroa* azterketako datuen arabera).

Bestalde, 2016an, 15 eta 29 urte arteko gazteen % 39,2k uste dute atzerriko immigrantei buruzko neurri egokiena haien sarrera ahalik eta gehiena erraztea izango litzatekeela; gehiagok uste dute (% 45,8) lan-kontratua dutenei soilik utzi beharko litzaiekeela sartzen; eta gazteen % 5,2k uste dute immigrantei sarrera debekatzea izango litzatekeela immigrazio-politikarik egokiena. Gainerako % 9,8ak ez dakite edo ez dute iritzirik eman.

Atzerriko immigrantei sarrera debekatzearen aldekoen ehunekoak behera egin du: % 9,8 ziren 2012an, eta % 5,2, berriz, 2016an. Immigranteen sarreraren aurkako iritziaren beherakada bat dator Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla uste duten gazteen ehunekoaren beherakadarekin.

7.5 grafikoa.

Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla uste duten eta immigranteen sarrera debekatuko luketen 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea)

Zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta txikiagoa da atzerritar gehiegi daudela uste dutenen proportzioa, bai eta haien sarrera debekatu beharko litzatekeela uste dutenen ehunekoa ere (% 3,7 dira azken iritzi horietakoak 20 urtetik beherakoen artean, % 4,3 dira 20 eta 24 urte artekoen taldean, eta % 7,2 dira 25 eta 29 urte artekoen taldean).

7.6. Euskadiko gazteen % 29,8k kontsumo jasangarria egiten dute


Kontsumo jasangarriaren helburua da gehiegikeriak murriztuz eta ingurumenari kalterik egin gabe premiak asetzea. Ahalik eta natura-baliabide gutxien erabiltzea da kontua, eta hondakinen eta gai kutsakorren isurketak minimizatzea produktu edo zerbitzu baten bizi-zikloan, gaur egungo premiak asetzean etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko izan behar duten aukera arriskuan jarri gabe.

Kontsumo jasangarriaren indizea eratzeko, ingurumena zaintzearekin lotutako portaera hauek hartzen dira kontuan: etxeko zaborra hondakin-motaren arabera bereiztea (2016an, gazteen % 63,5ek egin ohi dute hori), ur-kontsumoa murrizten saiatzea (% 60,7), garraio publikoa erabiltzea edo autoa partekatzea (% 58,9), enkarguak egitean norberaren poltsa edo orga eramatea (% 53,8) eta gehiegikeriarik gabe ontziratutako edo paketatutako produktuak erosten saiatzea (% 23,4).

Pertsona batek kontsumo jasangarria egiten duela esateko, jasangarritasunarekin lotutako bost portaera horietatik gutxienez lau erregulariki egin behar ditu. 2016an, kontsumo jasangarria egiten dutenen ehunekoa % 29,8 zen, zortzi puntu handiagoa 2012ko ehunekoa baino (% 21,4). Emakume gazteen kontsumoa gizonena baino jasangarriagoa da.

7.6 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen kontsumo jasangarriaren indizearen bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)


7.7. Lehen baino gehiago erabiltzen dira garraiobide jasangarriak: garraio publiko kolektiboa eta bizikleta

2016an, 15 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteen % 39,8k zioten garraio publiko kolektiboa (autobusa, trena, metroa, tranbia...) egunero edo ia egunero erabiltzen zutela. Ehuneko hori handiagoa da bai 2012koa baino (% 37,2) bai 2008koa baino (% 33,4).

Halaber, gazteen artean, gora egin du ohiko joan-etorrietarako bizikleta egunero edo ia egunero erabiltzen dutenen ehunekoak. Ehuneko hori % 5,3 zen 2008an, % 9,6 2012an, eta % 13,4, berriz, 2016an.

7.7 grafikoa.

Garraio publiko kolektiboaren eta bizikletaren eguneroko edo ia eguneroko erabileraren bilakaera 15 eta 29 urte arteko gazteen artean (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Alabaina, bizikletaren eta garraio publiko kolektiboaren erabilera ez da berbera kolektibo guztietan. Neskek mutilek baino neurri handiagoan erabiltzen dute garraio kolektiboa, baina mutilek neskek baino proportzio handiagoan erabiltzen dute bizikleta. Lurraldeka, Bizkaiko gazteak dira garraio publiko kolektiboa gehien erabiltzen dutenak eta bizikleta gutxien erabiltzen dutenak. Araban, kontrakoa gertatzen da; hau da, hango gazteak dira beren ohiko joan-etorrietan bizikleta gehien erabiltzen dutenak eta garraio publiko kolektiboa gutxien erabiltzen dutenak. Gipuzkoa tarteko postuan dago, bai garraio publikoaren erabileran, bai bizikletaren erabileran. Adinari erreparatuta, ikusten da 25 urtetik beherakoak direla garraio publikoa eta bizikleta gehien erabiltzen dituztenak.

7.8 grafikoa.

Garraio publiko kolektiboaren eta bizikletaren eguneroko edo ia eguneroko erabilera 15 eta 29 urte arteko gazteen artean, sexuaren, adin-taldearen eta bizi diren lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)

KAPITULUAREN LABURPENA

15 eta 29 urte arteko gazteen ia erdiak elkarteren bateko kide dira, eta hamarretik batek dio boluntario-jarduerak egiten dituela. Politikaren inguruko interesa handitu egin da azken urteetan, eta, horrekin batera, gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izateko nahia.

Ingurumenaren jasangarritasunarekin eta errespetuarekin lotutako praktikak ugaritu egin dira: hamar gaztetik hiruk kontsumo jasangarria egiten dute, hamar gaztetik lauk egunero erabiltzen dute garraio publikoa, eta zortzi urtean hirukoiztu egin da bizikleta egunero erabiltzen dutenen kopurua (hala ere, oraindik gutxiengoa dira).

8. AISIA, KULTURA eta KIROLA


8.1. 15 eta 29 urte arteko pertsonen aisia-jarduera nagusiak teknologia berriekin lotuta daude

Aisialdi-jardueren artean, 15 eta 29 urte arteko gazteek eguneroko edo ia eguneroko maiztasunarekin gehien egiten dutena musika entzutea da (gazteen % 81,9k diote musika eguneroko edo ia eguneroko entzuten dutela). Hain zuzen ere, beste jarduera batzuk egiten diren bitartean entzun daiteke musika; hau da, ez da baztertzailerik, eta kalean daudela (hori da gazteek gehien aipatzen duten bigarren jarduera), kirola egiten ari direla, bideoak ikusten ari direla eta edo beste edozertan ari direla entzun dezakete.

Azpmarratu behar da teknologia berriekin lotutako jarduerak direla ohikoenak, kalean egotearekin (% 56,8) eta kirola egitearekin batera (% 23,6). Hauek dira teknologia berriekin lotutakoak: musika entzutea gailu mugikorretan (% 81,9), filmak eta telesailak ikustea (% 52,5), Youtubeko, Vimeoko eta beste plataforma batzuetako bideoak ikustea (% 43,1), eta bideo-jokoetan ibiltzea (% 14,8).

8.1 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteek eguneroko edo ia eguneroko egiten dituzten aisia-jarduerak (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)

Gizonen eta emakumeen arteko alde handienak teknologia berriekin lotuta Internet bidez egiten diren aisialdi-jardueretan daude: Youtuben, Vimeon eta antzeko plataformetan bideoak ikustea (% 47,1 mutilen artean, eta % 38,9 nesken artean), bideokontsolekin jolastea, ordenagailuko jokoetan aritzea (% 18,2 mutilen artean, eta % 11,3 nesken artean), Internetera bideoak igotzea (% 2,6 mutilen artean, eta % 1,8 nesken artean), eta blogetan idaztea (% 2,4 mutilen artean, eta % 1,1 nesken artean).


Mutil gazteek neskek baino gehiago aipatzen dituzte beste jarduera batzuk; esaterako, kirola egitea, lokalean egotea eta kalean egotea.

Eta lokalera eguneroko edo ia eguneroko joaten direla dioten ehunekoa % 6,7 baino ez bada, lokalen bateko kideak diren ehunekoa % 20,2 da, bost urte lehenagoko ehunekoaren oso antzekoa, % 19,5 izan baitzen 2011n.

15 eta 19 urte arteko mutilak dira lokaletan gehien parte hartzen duen kolektiboa.

8.2 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteek lokaletan duten parte-hartzearen bilakaera, sexuaren eta adin-taldean arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak 2016*)

8.2. Euskadiko ia-ia gazte guztiek sare sozialen bat erabiltzen dute, WhatsApp, Facebook, Instagram eta Youtube batik bat

15 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteen % 99,7k sare sozialen bat erabiltzen dute. Euskadin, gazte bakoitzak 4 sare sozial erabiltzen ditu, batez beste (zehazki, 3,7). Sare sozialak egunero edo ia egunero erabiltzen dituztela dioten haiek soilik kontuan hartuta, ikus daiteke eguneroko erabiltzaileak % 98,2 direla.

Sare sozial horien eguneroko erabilerari dagokionez, neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dituzte egunero Instagram eta Facebook; mutilek, berriz, neskek baino gehiago erabiltzen dituzte egunero Youtube eta Twitter.

Adinari dagokionez, hiru adin-taldeetan hiru sare sozial berberak erabiltzen dira gehien (WhatsApp, Instagram eta Youtube), baina ordenan aldaketaren batekin, erabiltzaileen adinaren arabera.

15 eta 19 urte artekoen taldean, WhatsApp erabiltzen dute gehien (gazteen % 96,7k erabiltzen dute egunero), eta ondoren Instagram (% 89,9) eta Youtube (% 79,9). Askoz ehuneko txikiagoak dituzte Snapchatek (gazteen % 22,0k erabiltzen dute egunero), Twitterrek (% 16,1) eta Facebookek (% 5,2).

20 eta 24 urte arteko gazteen kolektiboan, WhatsApp erabiltzen dute gehien (gazteen % 99,0k erabiltzen dute egunero), eta ondoren Youtube (% 77,1) eta Instagram (% 75,1). Kolektibo horretan ere beherakada nabarmena izan du laugarren sare sozialaren eguneroko erabilerak, hau da, Facebookek (% 36,2); jarraian Twitter dago (% 22,4), eta LinkedIn agertzen da (% 8,6).

Azkenik, 25 eta 29 urte arteko gazteek ere WhatsApp erabiltzen dute gehienbat (% 98,9), eta ondoren Youtube (% 64,7); kolektibo horretan, ordea, Instagramek eta Facebookek antzeko ehunekoak dituzte eguneroko erabilerari dagokionez (% 58,6 eta % 55,3). Bosgarren lekuan LinkedIn dago: gazteen % 16,1ek erabiltzen dute egunero.

8.3 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteek egunero erabiltzen dituzten sare sozial birtualak, adin-taldean arabera

	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
1.	 % 96,7	 % 99,0	 % 98,9
2.	 % 89,9	 % 75,1	 % 58,6
3.	 % 79,9	 % 77,1	 % 64,7
4.	 % 22,0	 % 36,2	 % 55,3
5.	 % 16,1	 % 22,4	 % 14,9
6.	 % 5,2	 % 8,6	 % 16,1


Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteen joeren koadernoak 11*, datu-aurrerapena)

8.3. Teknologia berriek arte-jardueretan parte-hartze handiagoa izatea eragin dute, ikus-entzunezkoetan batik bat

2016an, Euskadiko gazteen arte-jarduera amateur ohikoena argazkigintza da; gazteen % 28,2k diote azken 12 hilabeteetan jarduera hori egin dutela. Argazkigintzaren atzetik, idaztea (% 21,3), pintatzea edo marraztea (% 17,8), bideoak egitea (% 14,7), musika-tresnak jotzea (% 14,7) eta dantza edo balleta (% 11,6) daude.

8.4 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen parte-hartzea arte-jardueretan (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak 2016*)

2012tik 2016ra bitartean, asko handitu da inkestaren aurreko 12 hilabeteetan arte- edo kultura-jardueraren bat egin duten gazteen ehunekoa. 2008an, ehuneko hori % 39,8 zen; 2012an, % 42,9; eta 2016an, berriz, % 55,1era iritsi zen.

Arte-jardueren gorakada 15 eta 19 urte arteko gazteen artean izan da batik bat. Hain zuzen ere, 2008tik 2016ra, % 35,8tik % 57,8ra igo da parte-hartzearen ehunekoa.

Emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan egiten dituzte arte-jarduera amateurak. Euskadiko 15 eta 29 urte arteko emakumeen % 59,4k diote arte- edo kultura-jardueraren bat egin dutela azken urtean. Gizonen artean, ehuneko hori % 51,0 da.

8.5 grafikoa.
Arte-jardueretako parte-hartzearen bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (*Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008. Euskal Autonomia Erkidegoa*)

8.4. Hamar gaztetik zortzi baino gehiago joan dira kultura- edo kirol-ikuskizunen batera azken hiru hilabeteetan

15 eta 29 urte arteko gazteen % 79,0 kultura-ekitaldiren batera joan dira azken hiru hilabeteetan. Kirol-ikuskizunak 2016an aztertu dira lehen aldiz, eta horiek ere kontuan hartzen baditugu, ehuneko hori % 84,6ra igo zen da.

Zinemara joaten direnen ehunekoak asko egin du gora 2012tik 2016ra bitartean, eta kontzertuetara, museoetara eta antzokietara joaten direnen ehunekoa egonkorra da. Sexuen arteko alde esanguratsu bakarra kirol-ekitaldietara joatearekin lotutakoa da: mutilen % 58,3 joan dira horrelako ekitaldiren batera azken hiru hilabeteetan, eta nesken % 34,6.

8.6 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteak kultura-ekitaldietara joatearen bilakaera (%)


Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (*Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008. Euskal Autonomia Erkidegoa*)

8.5. Euskadiko gazteen ia erdiek kirolen bat egiten dute modu erregularrean

Euskadiko gazteen % 49,0k kirolen bat egiten dute astean hiru aldiz edo gehiagotan. Ehuneko horrek gorakada handia izan du 2012tik 2016ra, % 40,2tik % 49,0ra hain zuzen.

Hala ere, gizonen eta emakumeen artean tartea dago oraindik, emakumeen kirol-jarduna gora egiten ari den arren. Dena dela, aipatu behar da gizonen eta emakumeen arteko aldea futbolaren praktikan dagoen aldeetatik dela batik bat; izan ere, mutilen % 29,4k diote futboleari aritzen direla, baina nesken % 3,1ek soilik jokatzeko diote futboleari. Futbola azterketatik kanpo uzten badugu, ez dago hainbesteko alderik nesken eta mutilen kirol-praktikan.

8.7 grafikoa.


15 eta 29 urte arteko gazteen kirol-praktika erregularren bilakaera, sexuaren arabera (%)

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea)

Beste adierazle batzuetan gertatzen den moduan, prestakuntza-aldiaren amaierak ohitura-aldaketak dakartza berekin, eta horren barruan, kirol-praktika erregularra alde batera uzten da apurka-apurka.

8.8 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen kirol-praktika erregularren bilakaera, adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea)

8.6. 15-29 urteko gazteen erdiek baino gehiagok diote azken hilabetearen libururen bat irakurri dutela aisiagatik

Euskadiko gazteen artean, irakurtzeko ohiturak hamar puntu egin du gora 2008tik 2016ra: 2008an, gazteen % 44,6k zioten libururen bat irakurri zutela azken hilabetearen aisialdian, eta 2016an, % 54,4k zioten hori. Irakurtzeko ohiturari dagokionez, emakume gazteek gizonak baino gehiago irakurtzen dute.

8.9 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen irakurtzeko ohituraren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (*Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008. Euskal Autonomia Erkidegoa*)

2008an, adin txikieneko taldeak (15-19 urtekoak) zuen irakurtzeko ohitura gutxien, baina egoera hori goitik behera aldatu da, eta, 2016an, adin-talde horietakoak dira gehien irakurtzen dutenak.

Okupazio nagusiaren arabera, ikasleen % 59,0k diote azken hilabeteetan aisiagatik libururen bat irakurri dutela. Lanean ari direnen artean, ehuneko hori % 51,7 da, eta langabezia dauden artean, berriz, % 42,4.

8.10 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazteen irakurtzeko ohituraren bilakaera, adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (*Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008. Euskal Autonomia Erkidegoa*)


8.7. Euskaraz irakurtzeko ohitura gero eta txikiagoa da ikasketak amaitu ahala

Euskaraz irakurtzeko ohiturak zertxobait atzera egin du azken urteotan: 2008an 15 eta 29 urte arteko gazte euskaldunen % 43,5ek irakurri zuten libururen bat euskaraz (aisialdi, lan edo ikasketen inguruan) inkestaren aurreko hiru hilabeteetan; 2016an, ehuneko hori % 41,8ra jaitsi da.

2008an, 25 eta 29 urte artekoen taldean, % 44,2k zioten azken hiru hilabeteetan libururen bat euskaraz irakurri zutela, baina ehuneko horrek behera egin du 2016an, % 29,4ra arte. 15 eta 19 urte artekoen taldean euskaraz irakurtzen dutenen ehunekoa % 60,1 dela kontuan hartuta, agerikoa dirudi ohitura horrek lotura duela hezkuntzarekin, eta gazteek alde batera uzten dutela apurka-apurka, hezkuntza arautua bukatu ahala.

8.11 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazte euskaldunen euskaraz irakurtzeko ohituraren bilakaera, adin-taldean arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008. Euskal Autonomia Erkidegoa*)


8.8. Euskararen lagunarteko erabilerak behera egin du 15 eta 29 urte arteko gazte euskaldunen artean

Lagunekin euskara erabiltzeko ohiturak beheranzko joera du oraindik ere gazte euskaldunen artean: lagunekin batik bat euskara edo bi hizkuntzak neurri berean erabiltzen dituzten gazte euskaldunen ehunekoak 10 puntutik gorako jaitsiera metatua izan du 2004tik 2016ra bitartean (% 48,5etik % 38,1era).

Lagunekin euskara erabiltzeko ohituraren beherakada Euskadiko hiru lurraldeetan gertatu da, baina bereziki nabarmena izan da Bizkaian. Hain zuzen ere, 2004tik 2016ra, lagunartean batik bat euskaraz edo euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiten duten gazte euskaldunen ehunekoa % 43,9tik % 27,1era jaitsi da.

8.12 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazte euskaldunen euskararen lagunarteko erabileraren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea)

Adierazle horretan sartzen dira dena edo ia dena euskaraz egiten dutela diotenak, euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak, eta bi hizkuntzak berdindarabiltzen dituztenak. Baina lurralde historiko bakoitzaren balio osoaren banaketan alde handiak eta esanguratsuak daude (ikus jarraian ageri den grafikoa).

Gipuzkoan, % 36,1ek diote dena edo ia dena euskaraz egiten dutela; % 5,5ek diote euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutela, eta % 16,3k diote bi hizkuntzak berdindarabiltzen dituztela. Bizkaia euskara lagun-giroan gehien erabiltzen den bigarren lurralde historikoa da, eta, hor, balioak oso desberdinak dira: % 6,1ek soilik diote dena edo ia dena euskaraz egiten dutela; % 4,2k diote euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutela, eta bi hizkuntzak berdindarabiltzen dituztela diotenek osatzen dute talde handiena (% 16,8). Azkenik, Araban erabiltzen dute gazteek gutxien euskara lagunekin hitz egiteko: % 4,4k erabiltzen dute euskara soilik; % 4,4k gaztelania baino zertxobait gehiago erabiltzen dute; eta % 12,3k bi hizkuntzak berdindarabiltzen dituzte.

8.13 grafikoa.

15 eta 29 urte arteko gazte euskaldunen euskararen eta gaztelaniaren lagunarteko erabilera, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)


8.9. 15 eta 29 urte arteko gazteen % 15,0k euskara erabiltzen dute hizkuntza nagusi gisa sare sozialetan

2018an, 15 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteen % 15,0k euskara erabiltzen dute hizkuntza nagusi gisa sare sozialetan. Ehuneko hori askoz handiagoa da Gipuzkoan: gazteen % 30,0k diote nagusiki euskara erabiltzen dutela sare sozialetan. Araban, soilik % 3,5ek diote batez ere euskara erabiltzen dutela, eta Bizkaian, berriz, % 8,4k.

Adinean aurrera egin ahala, handitu egiten da sare sozialetan euskara batik bat erabiltzen dutenen ehunekoa, baina aldeak ez dira lurralde historikoen arabera bezain handiak.

8.14 grafikoa.

Sare sozialetan batez ere euskara erabiltzen duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteen joeren koadernoak 11*, datu-aurrerapena)

KAPITULUAREN LABURPENA

Gazteen artean, musika entzutea, kalean egotea eta filmak eta telesailak ikustea dira aisialdiko jarduerak hedatuak. Ia ia gazte guztiek egunero erabiltzen dituzte sare sozialak, eta erdiek baino gehiagok arte-jardueraren bat egin dute azken urtean.

Irakurtzeko ohiturak gora egin du, baita kirola erregulariki egiteko ohiturak ere, baina alde nabarmenak daude sexuaren arabera: emakumeek gizonak baino gehiago irakurtzen dute, baina kirol gutxiago egiten dute.

Gazte euskaldunen artean, behera egin du euskararen lagun-giroko erabilerak; gero eta gazte gehiagok dakite euskara, baina horrek ez dakar berekin erabileraren gaineko kontzientziazioa pertsona horiengan guztiengan. Gipuzkoako gazteek dakite ondoen euskaraz eta haiek erabiltzen dute gehien, hala lagunartean nola sare sozialetan.

Laburpen-koadroa



